

uk

249. zenbakia / 2014ko martxoaren 24a



Leihatila
> Arrate Illaro

SOPEKOOOR

Aratusteekin hasi genuen martxoa Sopelan. Urko kiroldegian 150 gazte inguru elkartu ginen, *txoniak* eta *ikasle finak* tartean. Uste baino puntualago, *sirenoaren lapurrek* prestatutako *eusko label hanburgesa* eta *indioilarra* bazkaldu genituen, *gospel abeslariak* mahaia bedeinkatuta.

Inurri atomikoen indarrak bultzatuta, iluntzera arte luzatu genuen inauteri-eguna. “Ai gazteak, beti parrandan” pentsatuko du baten batek, baina *bikingo* despistatuenak ere ikusi zuen zer zegoen atzean: elkar-lana, autogestioa... eta hitz potolo horiek.

Kuriosoa da herrian azken bi urteetan gazteen artean sortutako mugimendua. Egin behar da esateari utzi, eta egiteari ekin zioten batzuek. Koadrilen koordinakundea sortu zuten, eta elkarlan horren emaitza da inauteri-egunekoa.

Horrelakoetan batzuek asko egiten dute, besteok ez hainbeste. Baina zer arraio! Segi lanean eta segi ospatzen, *Heineken* bana eskutan, *Michael Jacksonen* erritmoan dantzatuz. Ez gara inoiz *jubilatuko*.

gu geu

Tenporak eta... udabarri on!

Orain dela gitxiko eguazten, bariku eta zapatu batean izan ziren tenporak; tenperatura nahiko epela, egun argi-eguzkitsu bat, lainotutako beste bat, eta haizea firin-faran bai batetik zein bestetik. Ondorioz, “udabarri nahiko naturala” izango dugula emoten duela adierazi du fraide frantziskotar eta meteorologo Pello Zabalak, hori bai kontu hartzeko, haizea “xuabe baina denetatik” izan dugunez... Diotenez, eguraldi-tenporak Eliza katolikoaren beste helburu batzuk erdiesteko ondorioetatik jαιο ei ziren, “zientifikoki egiaztatuta” ei dago... Meteorologia zientziazat garatu zenetik, epe luzerako eguraldia iragartzeko erabiltzen diren tenporak eta halako herriezagutza tradizionalak “ziurtasuna” galdu ei dute... Gure begi batek Eguraldia saioa jarraitzen du, besteak tenporak... Bien ondorioak buruan, datorrena datorrela, udabarri on, irakule!

UK-ko lan-taldea

Iritzia

Uribe Kostako Ikasle Abertzaleak-ek azken asteotan deitutako geldialdien eta aurrera begirako ekimenen arrazoiak eta muinak azaldu gura izan dizkigu:

Hezkuntzaren garrantzia jendarteraztea, lehen urratsa

Zer da LOMCE? Azkar hedatu da galdera hau jendarteko sektore garrantzitsu batean. Espainiako gobernutik datorren eraso berri honek ezezko biribila jaso du euskal herritarrron aldetik eta lege honen aurka kontzientziazio-kanpaina izugarria lortu da. Euskal ikasleok,

ordea, beste galdera bat egiten diogu geure buruari: Zer da hezkuntza? Esaldi bakar batean erantzutea zaila izango litzakeen arren, argi dugu etorki-

zuneko euskal herritarrak eta beraz, etorkizuneko Euskal Herria eraikiko duena dela hezkuntza.

Madriletik datozkigun eraso etengabe hauei herri gisa erantzun behar zaiela ulertuta, hego Euskal Herriko hezkuntza-komunitate sendo eta anitza sortzea lortu dugu lehenbiziz. Gainera, LOMCEri aurre egiteko Hezkuntza Plataformen Topagunea bezalako guneak sortzen hasi dira gure herrian, lege honi modu praktikoan aurre egiteko tresnak sortzeko asmoz.

Ordea, herritar askok ez dute oraindik euren burua proiektu hauekin guztiekin iden-

tifikatuta ikusten. Hirugarren galdera egiten diogu geure buruari: Zer da hezkuntza-komunitatea? Hezkuntzaren garrantziaz jabeturik, herritar oro hezkuntza-komunitatearen atal garrantzitsu bat dela ulertu behar dugu, finean, etorkizuneko herria herritar guztien artean eraiki beharko dugulako.

Sektore erreformistek ekimen isolatuak direla saltzeko esfortzu guztiak egiten ari badira ere, Espainiako gobernutik datozen gainontzeko eraso guztiekin batera kokatzeko beharra ikusten dugu ikasleok, ekimen isolatuak ez direla ulertzeko. Errealitate gordina jendartearen degradazio prozesua hezkuntzatik hastea helburu dutela da, horretarako, enpresen zerbitzura egongo den ikasleria sumiso eta prekariora heziz, besteak beste.

Uribe Koston eta Euskal Herrian eraso hauei ezezkoa ematearekin nahikoa ez dela hausnartu dugu hezkuntza-komunitatea osatzen dugun kideok, gure herrian hezkuntza-sistema propioa eraiki nahi badugu salaketatik eraikuntzara pasatzea derrigorrezkoa izango baita.

Zentzu honetan kokatuko dira ikasleok eta gainontzeko herritarrok urtean zehar burututako ditugun mobilizazio etengabeak; eta bereziki, sortu berri den Bizkaiko ikasle mugimenduak martxoaren 27rako “Bizkaiko Ikasle Eztanda” izenpean deitu duen ikasle greba orokorra. Gainera, mobilizazioez gain azpimarratzekoak dira apirilaren 12an Bilbon burutuko diren ikasle jardunaldiak, datorren kurtsoari begira ikasleria formatzeko prestatuak. Gure erdua eraikitzeke badago ere, argi dugu herritik eta herriarentzat izango den euskal eskola nazionalaren eraikuntza berehala hasi behar dugula, oinarri sendoak dituzten alternatibak garatuz soilik gaindituko baititugu inposaketa guztiak.

Antxon Rodriguez
(Ikasle Abertzaleak)



ARMINTZAKO PORTUAN, 2014KO MARTXOAREN 5EAN

Matxitxakoko itsas-bataila gogoan / Martxoaren 5ean Matxitxakoko borrokaren 77. urteurrena izan zen. Data esanguratsu horretan, Plentziako Kandelaria kultur elkarteak omenaldia egin zien borroka hartan parte hartu zuten lagunei, baita Euzkadiko Gudonizdi Lagunzailean zerbitzatu zutenei eta euren senideei ere. Omenaldi “*xumea*” izan zen, Armintzako Portuan: biolinaren melodia entzun zen borrokalarien omenez, testu bat irakurri zuten batailan gertatutakoa gogorarazteko eta lore-eskaintza egin zuten portuan bildutako senideek eta herritarrek. O / Argazkia: Asier Mentsaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu?
Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera
umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak...
Idatzi galdera **gure facebook**-en
eta zeure partez luzatuko dugu!

Ehuneko zenbatean bizi daiteke euskaraz eskualdean?



Algorta

Urko Manzano

> **tabernaria**

Gehienez %20an. Nire ustez egunerokotasunean euskaraz bizi diren pertsona gehienak gurasoak dira; seme-alabekin euskaraz aritzen baikara. Hala ere, gurasoon artean gaztelarara jotzen dugu. Eskualdean %50ek badaki euskaraz, baina ohitura falta dago.



Algorta

Mainer Eguren

> **irakaslea**

Ehuneko oso txikian hitz egiten da, eta zerbitzuetan ere oso gutxi erabiltzen da. Guk ere ia ez daukagu ohiturarik euskaraz aritzeko. Gainera, toki batzuetan ez dute eskatzen lanposturako euskaraz jakitea, ez dute beharrezkoa ikusten; bigarren maila batean uzten dute.



Getxo

Amaia Kortabitarte

> **jantokiko begiralea**

Uste dut %50ean bizi gaitezkeela euskaraz. Inguru honetan jendea ez da euskalduna, baina tabernetan eta horrelakoetan euskaraz aritzen bazara posible da euskaraz erantzutea, batzuetan bai, beste batzuetan ez. Ni ibiltzen naizen leku gehienetan euskalduna izaten saiatzen naiz.



Getxo

Ibone Ametzaga

> **unibertsitateko irakaslea**

Jende askok ez daki, edo ez dauka euskaraz aritzeko erraztasunik eta gaztelarara jotzen dute normalean. Ez dago euskaldun zahar askorik, jendeak euskarra eskolan ikasten du, bai, baina gero ez dute erabiltzen. Oso zaila da jakitea ehuneko zenbatean bizi gaitezkeen euskaraz, baina oso altua ez da izango.



Getxo

Begoña Gutierrez

> **irakaslea**

%20ra ailegatzen bada, pozik! Garai batean, euskaraz aritzea militantzia kontua zen, onerako edo txarrerako, baina egun, militantzia hori badihudi eskolara mugatu dela; eskola-hizkuntza bilakatu da. Klean euskaraz entzun daiteke, baina soilik gurasoak umeekin aritzen direnean edo txakurrarekin ari garenean.



Getxo

Iker Begolain

> **ingeniarria**


Euskaraz bizi gaitezke? Bai, baina erlazioak euskalduntzea ez da batere erraza. Erlazio berriak egiterako orduan uste dut ehuneko handiagoa izango genukeela. Azken lau urteotan, seme-alabak direla-eta, egin ditudan erlazio berrien %50 euskaraz izan dira, eta oraindik ere euskaraz aritzen gara.

[orain]



ASIER MENTXAKA

[lehen]



INDALECIO OJANGUIRRIEN ARTXEOKA

Iraganez doa denbora* beti / GOIERRIKO ELIZA (ERANDIO)

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > alde egin, ahal duzun bitartean!



Getxo, 2014ko martxoa

Testua: **Galder Bilbao Martinez “Txapi”** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: *Lide txikia Hodei handia*

Garai batean leku horretan lasai zegoen ardia, baina orain dugu metal ugari hesia ta garabia. Etxeak dantzan han eta hemen horma gris eta zuria, teilatu ilunak leiho gehiegi ezkutatuta gurdia; aurrean dugu gustuko ez dugun koloreen irudia.

Oroitzapenak atzera bota ta irudia imajina; baserritarrek ortua zuten eginez lan oso fina. Eskasa da orain erakusten den lurrarekiko lan-grina, dena daukagu zementoarekin bustirik eta zikina; Uribe Kosta inoiz izan zen berdea eta birjina!

Piura hauxe dugu gaur egun gure herrietako plaza, Udalak lurrak salduz gainera ta diru bueltan jasa. Osasuntsua ez da izango ez dauka honek ona traza, "zurekoitasuna" da nagusi Ama Lurrataz be pasa; burni-zizarea ere badabil bilatzen non hartu arnasa!

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

Inprimatu zure posterra airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin

Pilo bat daukazu aukeratzeko



www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitetz zure eskaera egiteko

9,32€

-tik hasita BEZ barne



berbalagunak sarean > mintzanet.net



Info+: www.mintzanet.net

Euskaraz berba egiteko sareak eskaintzen digun ekimena da mintzanet gunea. Jatorrizko Getxoko Joserra Onandia berbalagunak emon digu honen barri; bertako parte-hartzaile da orain dela urte eta erdi eta “oso interesgarria, oso ondo” dagoe-la pentsatzeaz gainera, ahalik eta zabalkunde handiena behar duela eta erabiltzera gonbidatzen gaitu. Munduko edozein txokotatik internet bidez euskaraz hitz egite-

ko aukera eskaintzen du, bakoitzak adostutako egun-orduan. Batetik, euskara ikasten edo berreskuratzen dabiltzanei (bidelariak) praktikatzeko aukera zabaltzen die; bestetik, horiei laguntza luza diezaiekete euskaraz “ondo jantzitakoek” (bidelagunak), horietako gitxi ei daude. Donostiako Udala, Gipuzkoako Aldundiak eta Jaurlaritzak bultzatu eta Topaguneak eta Etxepare Institutuak babesten dute. o

irakurzaleen txokoa > Garbiñe Ubeda

UKITen (Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak) martxoko hitzordua hilaren 27an, eguna, izango da, 19:30ean, Villamonte kultur etxean (Algorta). Martxoko literatura-berbaldi eta osteko eztabaidarako Garbiñe Ubeda (Tolosa, 1967) gonbidatu dute, fikzioaren esparruan estreinako lana duen *Hobe isilik* (Elkar, 2013) nobelaz jarduteko. Ondarroako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako Augustin Zubika-

rai beka-saria jaso zuen, oraindik proiektu zela, lan hori idazteko Tolosako kazetariak. Hauxe *Hobe isilik*-en trailerra zitekeena: “1936ko Gerran ibili eta gero, II. Mundu Gerraren amaieran Frantziaren desagertutako Jose Bermejo aitona miliziano anarkistaren arrastoaren bila hasten da haren biloba Bakartxo...” Eta bide horretan “hainbat gogoeta: sekretuez, isiltzeaz, bizitza berri bat hasteaz, zaharra ahazteaz...” o



Garbiñe Ubeda (Tolosa, 1967)



Info+: www.breakonstage.com

jaialdia > kultura urbanoen erakusleiho

XIV. ekitaldia beteko du hilaren 29an Bilbao Arenan (Miribilla, Bilbo) egingo den *BreakOnStage* Nazioarteko Kultura Urbanoen jaialdiak. 19:00etan hasiko da ikuskizuna: “ordu bian, inapuen laburreko 20 ikuskizun taularatuko dira; jaialdian, nazioartean kultura urbanoaren erreferente bihurtu diren hainbat artista bilduko dira: breakdance-aren alorrean *The Ruggeds* (Holanda), *Inesteam* (Frantzia), *Rst Crew*

(Espainia); *Poe One break* (Los Angeles) dantzari mitikoa epaile lanetan eta ikuskizuna eskaintzen; *Kaynix* (Suedia) dantza-urbano talde famatua, *Chey* dantzariaren show berriaren estreinaldia; *Dirt Jump* bizikleta-jauzi lehiaketa egongo da; kale-dantza taldeen lehiaketa e.a.”. Amaitzeko, Rayd hip-hop musikariaren kontzertua iragarri dute. Sarrerak aurretik 10 euro eta leihatilan 12 euro balio du. o

saiazgetaria

HOTELA



Roke Deuna 25
20808 *Getaria*
Gipuzkoa



...harria...lehenago garaiak...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Zabaldu euskararen atea





Hauxe da aurreztu dezakezuna zure establezimenduaren errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz jartzen badituzu

%50 gehienez 360 euro, euskara hutsez jartzen baduzu.

%30 gehienez 180 euro, euskarazko testuak lehentasuna badu.

Getxoko enpresa hauetan eska dezakezue zuen errotulua, lehenengo seietan, gainera, deskontu gehigarria egingo dizuete:

%10 eko deskontu gehigarria euskaraz jartzen baduzu.

%5 ekoa euskaraz eta gaztelaniaz jartzen baduzu.

TOLDOS Y PERSIANAS MURGUIA
Euskal Herria 23. 94 491 54 32
RÓTULOS PUBLIARTE
Bidebarri 19. 635 752 373
CIANOPLAN
Plentzia hiriaren kalea 6. 94 464 85 72
ULI ARTE PERSIANAS
Andres Cortina 14. 94 403 55 90
LA REPRO
Euskal Herria 10. 94 491 13 95
KALKO
Aingeruaren etorbidea 4B. 94 491 29 83
KISER
Kale Nagusia 16. 94 464 73 37
AMETS
Telletxe 13. 94 460 10 31
RÓTULOS ARRILUCE
Arriluze kaia z/g. 94 491 09 83

GETXOKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA

94 466 00 10/11
euskara.zerbitzuag@getxo.net
www.getxo.net

DESKONTU GEHIGARRIA

HIZKUNTZA AHOULKULARITZA GETXOKO SALTOKIEI

94 415 22 52
gehi@getxo.net



“Komertzianta izateko herriagaz bizi behar duzu: ez bakarrik jaso, emon ere egin behar da”

Iñaki Aresti Escudero > bitxitegian 1966. urtetik

Merkatal-gune erraldoi eta krisiaren eraginez, dendari txiki askok euren komertzioa itxi behar izan dute. Erakusleihen orde, pertsiana grisak ditugu orain herri askotan. Badira, oster, aurrera egitea lortu dutenak. Algortako Iñaki Bitxitegia dugu horren adibide. Iñaki Aresti berangoztarrak zabaldu zuen negozioa 1966. urtean, Villamonten: “Komertzioetan hasierak gogornak dira, eta are gehiago gure gremioan, inbertsio handia egin behar delako”. Arestik 20 urte zituen, baina ez zen luma bako txorikumea: “14 urtegar Areetako Joyeria Manolo’n hasi nintzen, ikasle”. 50 urte daroa, beraz, bitxigintzan, eta aitortu duenez, gustuak asko aldatu dira: “Urre gorrizko kateak saldu doguz asko, batez ere Ama Birjiñe Begoñakoak. Orain urre gorria apur bet gutxiago salduten dogu, kalean dauzen anazoakaz...”. Aresti Bizkaiko Bitxigintza Elkarteko presidentea da, eta ondo ezagutzen du sektoreak bizi duen egoera: “Ez dago sasoiaren”. Hala ere, Iñaki beti egon da oso lotuta herrigintzari: “Komertzianta izateko herriagaz bizi behar duzu, ez bakarrik jaso, emon ere egin behar da”. Hori dela-eta, hamaika saltsatan ibili da: Arenas futbol-taldean “porteru”, Berangoko txakolingileakaz... Gaur egun, buru-belarri dabil Berangok galdu zuen kostalde zatia ikertzen: “Dokumentu askoan agertzen da Berangok kosta zati bat izan zuela: Berangoribera...”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

2014rako udal-aurrekontuak

Udal-gobernuak aurkeztu du **aurrekontu-proposamena** urte honetarako eta **oposizioko** alderdien **kritikak** eragin ditu: **berandu aurkeztea** eta **inbertsiorik eza** leporatu diote **EAJri**

Getxoko udal-gobernuak aurtengo aurrekontu-proposamena aurkeztu du eta oposizioko alderdiakaz batzen dabil, horiek onartze-akordioa egiteko. Azken horiek, ordea, ez daude pozik proposamenagaz eta alternatibak plazaratzen hasi dira. EHBilduk eta PPK inbertsio guztiak Getxo Antzokira eta Romo kultur etxera bideratzea leporatu diote EAJri.

Getxoko udal-gobernuaren aurrekontu-proposamena 98,3 milioi eurokoa da 2014rako, iazkoa baino %1 gutxiago. EAJ-ren gobernuak dioenez, zergak eta tasak barriro ere izoztuko dituela eta lehentasuna emongo diela “*kalitatezko oinarrizko zerbitzuei eta kultur-, kirol- eta ekonomia-jarduerari, gizarte-politikekin batera*”.

Eremuz eremu, horrela banatzen dira aurrekontuak: oinarrizko zerbitzueterako, 34.216.203 euro; euskara, kultura, aisialdi eta kirolerako, 18.329.839 euro; gizarte-politiketarako, 14.021.876 euro; proiektuetarako, 8.428.026 euro; jarduera ekonomikoa sustatzeko, 2.557.259 euro; herriarrekiko komunikazio, parte-hartze eta gargentasunerako, 1.918.187 euro; eta zorroztasun ekonomikoa eta kudeaketaren eraginkortasunerako, 18.781.400 euro.

Udal-gobernuak jakinarazi du, orohar, bestelako administrazioetatik jaso beharreko diru-laguntzetan murrizketak bere horretan jarraitzen dutela, baina Udalkutxaren kasuan, ekarpena ia 6 milioi euroan



Europako Kirol-Hiria izateak eragina izango du aurrekontuen banaketan

handituko dela (39,6 milioietatik 45,4 milioira igoko da).

Proposamena aurkezteagaz batera, EAJk iragarri zuen gainontzeko alderdiakaz batuko zela aurrekontuak onartzeko akordioak lortzeko. Horren harira, oposi-
“Udalkutxaren diru-laguntza ia 6 milioi euro handituko da: 39,6 milioitik 45,4ra igaroko da 2014an”

zioko alderdiek EAJren asmoa zalantzan ipini eta proposamenak bere “*proiektuari erantzuten*” diola salatu dute.

PPk eta EHBilduk salatu dute inbertsiorik eza, eta aurrekontua Getxo Antzokiko eta Romo kultur etxeko proiektuen menpekoea dela. “*Antzokia eta kultur etxearen distiraz itsuturik, ez dute beste inber-*

tsiorik egiten”, EHBilduren arabera, “*be-hartuko lituzkeelako herritarren kezak kontuan hartzera, eta oposizioko taldeekin negoziatzera*”. Hain zuzen, negoziatziorako borondaterik eza leporatu dio koalizioak udal-gobernuari, eta horregatik aurkeztu dituela aurrekontuak “*berandu*”. PSEk ere salatu du EAJ ez dela saiatu aurrekontuak negoziatzen, eta “*ez daukala horretarako asmorik*”. Zergak izozteari buruz, bestalde, EHBilduk dio “*halabeharrez*” egin dutela, “*aurrekontuak martxoan aurkeztuta ez dagoelako aukerarik eztabaidatzeko*”.

EAJk dio aurrera egingo duela akordioa lortu edo ez, eta aurrekontuek jaso beharreko “*gutxieneko puntuak*” zabaldu dituzte EHBilduk eta PSEk; PPK iragarri du gauza bera egingo duela. ○

Info+: www.getxo.net

Aste Santurako eskaintza

Bapiruke-koloniak eta kirol-kluben campusak



Andra Mariko kiroldegiko skate-campusa da aurtengo nobedadea

Aste Santua di-da helduko da eta oraindino plan barik? Getxon badaukazu proposamen interesgarriak: batetik, Bizarra Lepoan elkartearen koloniak, bestetik kirol-kluben campusak.

Euskara elkartearen koloniak 5 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta daude, apirilaren 14tik 16ra eta 22tik 25era garatuko dira, eta leku bitan egingo dira: Algortako Zabala eskolan eta Romo ikastetxean. Bizarra Lepoan taldeko bazkideek 30 euro ordaindu behar dute, gainontzekoek 50 euro (gutxieneko errenta jasotzen dutenek 10 euro). Bazkideek izena emon behar dute martxoaren 31 eta apirilaren 2a artean, gainontzekoek apirilaren 3tik 7ra bitartean, bulegoan (Martikoen, 16). Galderarik badaukazu 944 910 387 telefonora dei dezakezu edo helbide honetara

idatzi: info@bizarralepoan.org.

Bestalde, herriko zenbait kirol-klubek 14 kirol-campus eskainiko dituzte, Getxo Kirolak elkartearagaz alkarlanean. Gimnasia erritmikoa, saskibaloia, igeriketa, tenisa, irristaketa, boleibola, bela, futbola, surfa eta, aurten lehenengoz, skate-campusean parte har dezakete umeei.

Gainera, *Amesten* zerbitzua ere abiatuko dute: beraien trebetasun motorrak hobetzen dituen errealitate handituko sistema barri bat erabili ahaliko dute zenbait campusetako partaideek (izena emateko: 660 302 536 eta amesten14@gmail.com). Azkenik, Fadura kiroldegian Txikigunea ere ipiniko dute: izena emateko 946 016 092 edo txikigunea@gmail.com. ○

Info+: www.getxo.net eta bizarralepoan.blogariak.net

IÑIGO OTAZUA KALEAN, 20 URTE OSTEAN

Iñigo Otaua Urresti *Oti* algortarra 1994ko urriaren 25ean atxilotu zuen Ertzaintzak Areetako Bizkaiko Zubiko plazan, ETA erakundeko kide izatea leporatuta, beste hiru urbe kostarregaz batera (Iñaki Gonzalo, Angel Figueroa eta Andoni Muñoz), eta ia 20 urte ostean, martxoaren 17an kaleratu zuten zigor osoa bete ostean. Iñaki Gonzalo *Kitxu* romotarra abenduan askatu zuten eta Angel Figueroa orain urtebete zendu zen, zigorra etxean betetzen ari zela. *Oti* Carabanchel, Alcalá-Meco, Cuenca eta Topaseko (Salamanca) espetxeetan izan dute urteotan.

GETXON BIZI TAILERRAK ABIATU DITUZTE

Getxon Bizi harrera-programako tailerrak abiatu dituzte. Udalak eta Eusko Jaurlaritzak antolatzen dituzte, eta Medicus Mundi elkarteak emoten ditu. Osasun eta ongizate arloetako gaiak jorratzeko gune irekia ere antolatu dute aurten lehenengoz. Tailerrak doakoak dira, eta martxo eta urri arteko igandeetan gauzatuko dira, 10:00etatik 14:00etara. Izena emon behar da tailer bakoitza hasi baino egun batzuk lehenago, Getxoko edozein Herritarren Arretarako Bulegoetan edo Udalaren webgunearen bitartez.

Info+: www.getxo.net

GITXIAGO BIRZIKLATU DA GETXON 2013AN

Getxoztar bakoitzak 362 kilo hondakin sortu zituen 2013an, Getxo osoak 29.000 tona, Udalak jakinarazi duenez. Horietatik %21 (6.000 tona inguru) birziklatzeko hondakinak ziren: papera, beira, ontziak, pilak, hondakin handiak, e.a. Hortaz, aurreko urtean baino %3 gutxiago birziklatu zuten getxoztarrek 2013an. Aipatzea garbigune ibiltariak 40.212 kilo hondakin bildu zituela herriko lau gunetan. Udalak txostena zabalduko du birziklatzeko gaikako-bilketaren datuakaz: horiei emoten zaien azken erabilerari buruzko azalpenak ere jasotzen ditu dokumentuak.

Info+: www.getxo.net

MR TALLER MECANICO
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas
Mota guzietako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargeltzaileak, Soinua...
Tf. 94 430 17 81
Bidezabal Kalea 9
48993 GETXO

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak
gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!
Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Nerea Mendizabal Etxeberria > psikopedagogoa eta gizarte-hezitzailea

“Haurra isilaraziz eta emozioa moztuz, ez dugu lortuko bere beharra ulertzea”



Hitzaldia emongo du Algortan martxoaren 27an. Argazkia: Juan Luis Gomez

Nola lagundu umeen adimen emozionalean? Galdera potolo horri erantzuten saiatuko da Nerea Mendizabal Etxeberria; psikopedagogo, gizarte-hezitzaile eta umeentzako masaje-hezitzaile da. Sendi-egitasmoko lagunek gonbidatu dute hitzaldia emotera, Hazibideak zikloaren barruan. Martxoaren 27an izango da solasaldia, 17:30ean, Algortako Zabala ikastetxean (Juan Bautista Zabala kalean). Saioan parte hartzeko izena emon dezakezu 685 732 963 telefonora deituz edota sendigetxo@yahoo.com helbidera mezua igorriz.

—Umeen adimen emozionalean zelan lagundu azalduko duzu?

—Hitzaldia guraso eta hezitzaileentzat da. Irizpide batzuk emango ditut azaltzeko zelan lagundu haurren emozioetan, adimen emozionala osasuntsua izan dadin. Bizitzaren arrakastaren %75 harreman pertsonaletan dago eta %25 dagokio garunean gordetzen dugun informazioari. Arrakasta diodanean maila pertsonal, sozial eta profesionalean ari naiz. Baina bizitzako lehen urteetan denbora asko ematen dugu informazioa buruan

gordetzen eta, beraz, zerbait egin behar dugu emozioen aldea zaintzeko. Ikusi behar dugu heldu bezala zer jarrera hartu emozioen aurrean, guk ez dugulako gartu alde hori eta automatikoki ateratzen zaigulako haurra isilaraztea, emozioa moztea. Beraz, zer egin dezakegu, adibidez, haurra haserretzean? Horrelakoetan, haurrek nahi dute entzun diezaieguna eta haserre kanporatu.

—Eta zer egin dezakegu horren aurrean? —Espazioa eman emozioa kanpora desan, eta emozio horri izena jarri. Baina ez

du esan nahi gura duena egin dezakeenik: gauzak apurtu, min eman... Horiek izaten baitira bidea amorrua ateratzeko. Emozioa kanporatzen utzi, baina jokaerok ere moztu behar ditugu: “*Haserre zaude, entzun nahi zaitut, baina ezin dizut utzi min egiten*”. Muga jarriko diogu min emateari, ez haserreari. Baina jokaera mozten ba-

«Emozioa mezularia da: haurrak zer esan nahi digu emozioaren bidez?»

dut, zer beste modutan atera dezake haserre? Izan daiteke kuxin bat emanek bertan jotzeko, pilota bigunak hartu eta gerra bat eginez, e.a. Bestela, energia pilatu eta nahi ez dudana moduan aterako du. Eta bukatuko genduke ikusten emozio horrek zer mezu eman nahi digun: emozioa mezularia delako. Ikusiko dugu zer behar aldarrikatzen ari den eta irtenbidea jarriko diogu. Baina zein da beharra? Adibidez, haserre zaude nahi zenuelako gozokiak erostea. Baina zein da bere beharra gozokiak erostea nahi duenean? Esango diozu: “*Zer nahi duzu, zerbait gozoa jan? Zu kontuan hartzea?*”. Baina ulermen hori emateak ez du esan nahi gozokia erosiko diozunik. Kontua da, beste modura, isiltzeko aginduz eta moztuz, ez dudala ulertuko bere beharra, eta ez dudala kontuan hartuko bera eta bere desioa. Gauza da ulertzea bere beharra, eta gero esango diot bazkaltzera goazela eta ez dela egokia gozokia orain jatea. Eta irtenbidea ematen ere saia naiteke, agian niretzako segurua den beste zerbait gozoa emanek, edo gozokia une egoki batean emanda: erdibidea topa dezakegu? Baina begirada hor jarriko dugu, ez emozioa isilarazten eta beti nik esaten dudana betetzen. ○

Info+: www.hartueman.com

Letrak gozatzeko

Algortako **Liburu-Azoka** goiz iritsiko da aurten: **apirilaren 2tik 6ra** izango da



Algortako Geltokia plazan ipiniko dituzte postuak

Liburuaren Eguna apirilaren 23an ospatzen da nazioartean eta data horren bueltan egin ohi da Algortako Liburu-Azoka. Aurten, ordea, aurreratu dute, Aste Santuagaz bat ez egiteko. Hortaz, apirilaren 2tik 6ra izango da azoka, ohi legez, Geltokia plazan (Telletxen).

Postuak zabalduko dituzte goiz eta arrastiz, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Mota honetako ekimen guztietan legez, liburuak erosi ahalko dira %10eko beherapenagaz. Postuak ipini ohi dituzte herriko liburu-dendek, eta Getxoko kultur etxeko liburutegiek ere beren gunea izango dute: horrela, irakurleei li-

buruak mailegatzeko aukera eskainiko zaie, eta etxera eraman ahal izango dituzte.

Idazle ezagunak ere bertaratuko dira azokako lehen egunean, hain zuzen ere, zaleentzako liburuak sinatzera eta eurakaz solas egitera. Baina erosteaz gainera, hainbat ekimen garatuko dira azokak iraun bitartean: erakusketak, jolasak, tailerrak, ipuin-kontaktak, ikasle getxoztarren jendaurreko irakurketa, txotxongilo-emanaldiak, liburu-aurkezpenak, ludoteka, e.a. Umeek eta gazteek, gainera, komikiak eta ipuinak bertan irakurri ahalko dituzte, horretarako prestatutako gunean. ○

Info+: www.getxo.net

BERBALAGUNEN PALA-TALDEA LASTER!

Pala-taldea abiatuko dute aurki Berbalagun egitasmoaren baitan. Getxoko Aixerrota institutuko pilotalekuan alkartuko dira palista euskaldunak eta gaueko 21:00 arte luzatu ahal izango dira saioak. Beraz, palan jokatzea gustuko baduzu, ona edo txarra izan, esaezu antolatzaileei zein egun eta ordutatik aurrera joka dezakezun. Hartara, taldeak antolatu ahalko dituzte. Kirol-materiala norberaren kontura izango da, baina pistaren gastuak EGIZU taldeak ordainduko ditu. Informazio gehiago eta izena emateko: egizugetxo@gmail.com eta 619 935 541.

Info+: www.egizu.org

ERDILDUN BERRIEN KLUBA HIL HONEN 26AN

Martxoaren 26rako prestatu dute *Erdaldun berrien kluba* bakarrikzeta Areetan. Egizu taldeak antolatu du eta hiru saio egingo dituzte: lehenengo biak Andres Isasi musika-eskolan izango dira, 09:00etan eta 11:00etan; hirugarrena, barriz, Elkartegian izango da, 17:30ean. Bakarrikzeta bereziki zuzenduta dago euskaltegi-tako ikasleei eta berbalagun proiektuko parte-hartzaileei, baina herriar oro joan daiteke ikustera. Sartzea doakoa izango da.

Info+: www.egizu.org

ATARA GIDA-BAIMENA EUSKARAZ, ANIMATU!

Getxoko sei autoeskolak parte hartuko du aurten *Gida-baimena euskaraz!* ekimenean (Amezti, Arias, Algorta, San Inazio, Uribe Kosta eta Getxo), Leioako eta Erandioko beste hainbategaz batera. Getxoren kasuan, Udalak 100 euroko diru-laguntza emongo die azterketa teorikoa euskaraz prestatzen duten herriko gazteei; gainera, kanpainaren barri emoten duen gutuna ere jasoko dute etxean. 2013an 43 getxoztarrek egin zuten azterketa teorikoa euskaraz, eta praktikoa ere horrela egin dadila saiatzen ari dira ekimenaren bultzatzaileak.

Info+: www.getxo.net

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Giovanni Pecoraro Ruiz > psikologoa eta giza-baliabideetan trebatzailea

“Iragana igaro da eta etorkizuna ez da ziurra: arreta ipini orainean, bizitza orain gertatzen da-eta”

Estresa murrizteko teknikak irakasten ari da Giovanni Pecoraro Ruiz egun bakarreko tailerretan. Eskaera handia eduki dute eta tailer bakarra egitea aurreikusi bazuten ere, daborduko beste bi antolatu behar izan dituzte. Joaterik ez badaukazu hona hemen gomendioetako batzuk.

—Zer helburu daukate tailerrek?
—Asmoa da parte-hartzaileei estrategiak irakastea estresari aurre egiteko, berau gixtitzeko eta gaintzeko modu osasuntsuan, hiru ikuspegitatik: erlaxatzeko teknikak ikasiz, pentsamendu estresagarriari aurre eginez eta ohitura estresagarriak ordezkatzuz osasuntsuagoak diren beste batzuentzat.
—Zein metodologia erabiltzen duzu?
—Praktikoa erabat: ikasteko, batez ere egin egingo dugu. Banaka zein taldeka, parte-hartzaileek ariketa errazak ikasten dituzte estresari aurre egiteko. Sentitu, egin eta esperimintatuko dugu. Hiru aditzetan laburbiltzen dira tailerrak: gozatu, parte hartu eta ikasi.
—Nahikoa izango da tailer bakarragaz?
—Helburua ez da gauza asko ikastea, baizik eta ondo egiteko nahikoa ikastea. Estrategia zehatz batzuk irakasten ditut, bai-



Parte-hartzaileek interesa agertuz gero etorkizunean tailer gehiago egin lezakete gaian sakontzeko

na ondoren horiek eguneroko bizitzan txertatuz lortuko da trebezia eta eragin-kortasuna. Era berean, estrategiok erabiltzeko ez dugu itxaron behar estresak gu blokea gaitzan: maiztasunez erabiltzen ditugun heinean eraginkorrago izango gara estresari aurre egiteko.
—Interesa daukaten baina tailerrera joaterik ez daukatenentzako gomendiorik?
—Iragana igaro da eta etorkizuna ez da ziurra, beraz, arreta ipin dezatela oraine-

an: benetako bizitza orain gertatzen da-eta. Egunerokotasuna eta une bakoitza gozatzen ikasi, ilusioa ipiniz gauza sinpletan. Nagusiez ikasi: ez dute behar, ez azkar ibiltzerik, ez markako arroparik, ez luxuzko autorik; konpainia eta maitasuna balioztatzen dituzte eta, urteakaz, desberdintzen ikasi dute garrantzitsua dena eta funtsezkoa ez dena. Pentsamendu onak izan: gure konpainiarik gertukoena eta ohikoena izango dira-eta. ○

Leioako ezagutza-sarea

Merendoles dinamika **garatzen** dabil
Solasgune egitasmoa **auzo**z **auzo**



Info+: www.herrigune.org eta www.laboragunea.com

Leioaztarren ezagutza-sarea osatu asmoz, Merendoles dinamika garatzen ari da Leioako Solasgune. Helburua da jakintza-emaleak lortzea eta horien artean sarea osatzea, zerbait jakin gura duenak bertara jo ahal izateko ikastera.
Solasguneko lagunek azaldu dutenez, ez da ikaste edo irakaste hutsa: “*personen arteko harremanak eraikitzeaz ari gara, dakigun hori gure auzolagunen eskura jartzeaz, bide batez elkar ezagutuz eta komunitate gisan indartuz*”. Horregatik, auzoz auzo garatzen ari dira Merendoles, eguazten bakoitzean auzo batean, alkarregaz meriendatu eta solasean arituz.
Antzolatzaileen arabera, Leioako Hezikuntza-Komunitatearen oinarrizko tresna

da ezagutza-sarea: “*Komunitatearen ehundura denon artean josi behar dugun heinean, bestelako urratsak emon aurretik jakin behar dugu zeintzuk diren gure desio, gogo eta baliabideak*”. Hortik abiatuta, ikasgu-neak diseinatu eta antolatuko dituzte, alkarregaz eta norbere baldintzen arabera.
Egon dira Errekalde plazan, Estartetxe kalean, Udondon, Donibanen eta Piuñetan, eta horretan segituko dute hurrengo asteetan ere. Jakintza-pilulak, irakasle, ezagutza-azoka eta mikro-tailerretan baliatuko dituzte, baita jendeak proposa ditzakeen beste ekintzetan ere. Dinamikan parte hartu gura baduzu egon adi hurrengo deialdietara, Solasguneren webgunean: www.herrigune.org. ○

SAN JUAN JAIETARAKO KARTEL-LEHIAKETA

Sanjuanak iragarriko dituzten kartela lehiaketa bidez aukeratuko dute aurtien ere, eta lanak aurkez daitezke apirilaren 25era arte. Kultura eta Gazteria sailera eroan behar dira, Kultur Leioako 4. solairura (Jose Ramon Aketxe plaza, 11). Kartelean derrigorrez ipini behar da ondoko testua: Leioa San Juan jaiak 2014. Era berean, nahitaez agertu behar da Leioako jaietako ohiko motibo eta bereizgarriren bat, eta gura beste proposamen aurkez daitezke. Sari bakarra emongo dute, 800 eurokoa, eta ekitaldia maiatzaren 9an izango da, 18:30ean, Aterpe Leioa Gaztegunean.

Info+: www.kulturleioa.com

UMORE-AZOKA

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) 2013ko Umore-Azokako dieta eta janaritarako txartelen kudeaketaren inguruko informazioa eskatu dio Udalarai, EHBilduk jakinarazi duenez. Koalizioak orduan salatu zuen iazko Umore-Azokako teknikarien eta artisten “*edari, bazkari eta afariak ordaintzeko, 9 taberna eta jatetxeren artean banatu beharreko diru publikoaren %78 Batzokiak fakturatu*” zuela. Hau da: “*horien artean banatu beharreko 13.681 euroetatik, Batzokiak 10.680*” jaso zituela. LEAri dagokio orain afera ikertzea.

FACIL DANTZA- IKUSKIZUNA, HILAK 28

Cielo Raso konpainiak eskainiko du *Facil* dantza-ikuskitzuna martxoaren 28an, Kultur Leioan. Emanaldia 20:30ean hasiko da eta sartzea 10 euro ordaindu beharko da. Igor Calonge da zuzendaria eta koreografoa, eta taula gainean jardungo da Andrea Quintanagaz batera. “*Bi pertsonaia esnatuko dira zerbait gertatuko delakoan, baina ez da gauzatuko. Tentsioa handituz joango da, pertsonaien subkonstzienteagaz lotutako bake deserosoa medio, eta ekintza bandaliko txikiak eragingo dituzte, ingurune idilikoa desagokiak direnak*”.

Info+: www.kulturleioa.com



**Denboraldi berriko arropa
prezio paregabeetan**

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57



Luberri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberri@euskalnet.net
www.luberri.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Txema Negro > Saharako maratoin parte hartu du

“Lasterketa gitxienekoa da: izugarria da eurak zelan bizi diren ezagutzea, zelan hartzen zaituzten”

Saharako maratoin parte hartu du Txema Negro astrabuduarrak; saharar herriagaz elkartasun-ekintza da eta 14. lasterketa izan da aurtengoa. Negrok bere esperientzia kontatu digu.

—Zelan sortu zen Saharako aukera?
—Euskotrenen lan egiten dut eta bertan badago elkarte bat Saharagaz elkartasun-ekimenak egiten dituen; Metro Bilbaoko langileek ere parte hartzen dute. Elkarrekin ideia izan zuen trenbideetako langileek maratoin parte hartzeko eta, aitzakia horregaz, gure enpresak inplikatzeko elkartasun-ekintza honetan, laguntza ekonomikoa emon ziezaguten. Hiru kirolari joan ginen, kamisetak diseinatu genituen eta enpresek ordaindu zituzten; guk saldu eta lortutako diruagaz botikak erosi genituen saharar errefuxiatuei eroateko. Otsailaren 21ean abiatu ginen eta astebete egon ginen; maratoina 24an izan zen. Bertakoak bizi izan gara, elkartasun-egitasmoak bisitatu ditugu eta ahal genuen moduan lagundu.

—Zelakoa izan da proba, gogorra?

—Egun beroa urten zen, baina lortu genuen proba egitea. Ez da gauza bera klima hartan korrika egitea: beroagatik, lurzorugatik, e.a. Luzerako probak egin ziren, guztira 400 korrikalarik parte hartu genu-



Info+: astrabuduataldea.blogspot.com

en, 25 herrialdetakoak. Probaren helburuak dira: batetik, zonaldean kirola bul-tzatzea eta, bestetik, Saharako gatazka agerraraztea nazioartean. Parte hartzeak eta bidaiak 900 euro balio du pertsona bakoitzeko; hortik 200 euro bideratzen dira elkartasun-egitasmoetara.

—Eta esperientzia osoa?

—Ikaragarria. Lasterketa kanpamendu batetik igarotzen da eta irrintzika hartzen zaituzte. Eguneroko gogortasunetik apur bat ateratzeko balio die probak eta hori

transmititzen dizute: oso hunkigarria da. Emaizta bigarren mailan lotzen da: eurak ezagutzea, zelan bizi diren ikustea, zelan hartzen zaituzten. Bizitakoa asimilatzen ari naiz. Adobezko etxeetan bizi dira, gehienetan argirik gabe, urik gabe (kamioietan eroan behar diete). Egoera gogorra da baina, gogortasun horren barruan, zori-ontsu dira eta, gu goazenean, ahaleginik handiena egiten dute gustura egon gaituzten. Oso abegitsuak dira eta esperientzia benetan izugarria izan da. ○

Aurten Santimamira! Kanpomartxo euskararen aldeko jaialdia apirilaren 13an ospatuko da



Info+: berbots.blogspot.com

Santimami auzoak hartuko du aurten Kanpomartxo, Leioako mugan. Euskararen aldeko jaia Berbots Erandion Euskaraz taldeak antolatzen du urtero, udabarri hasieran. Oraingoan apirilaren 13an ipini dute hitzordua.

Eguerdian hasiko da jaia dantza-erakustaldiagaz: Trabudu, Goi-Alde eta Uz-targi taldeetako lagunek dantzatuko dute. Amaitutakoan, barriz, Mendibaiarte abesbatzak kantatuko du, 13:00 aldera, eta jarreraian hasiko da bertso-saioa: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso gonbidatu dituzte oraingoan, Erandioko bertsolari gazteak batera abesteko. Eta apurka iritsiko

bazkalordua: bakoitzak berea eroan beza.

Bazkalostean, Roberto Etxebarriagaz abestuko dituzte betiko kantuak eta ume-entzako ikuskizuna egingo dute Puski eta Txurruski pailazoez: *Klownmunitatu fest*. Hori dena 17:00etan izango da. Eguna ganoraz amaitzeko, Garilak 26 taldearen erromeria izango da, 18:00etatik aurrera.

Txosna, animazioa, taloak, jolasak edota lehiaketak ez dira faltako egunean zehar. Gogoratzea antolakuntzak doako autobus-zerbitzua ipiniko duela egun osoan, ohi legez, auzoan auto-metaketa ekiditeko. Santimamiko azken Kanpomartxon legez, eguraldiak lagunduko ahal du! ○

FAR WEST ALTZAGAN MARTXOAREN 29AN

Yllana taldeak ekarriko du mendebalde basatia Erandiora martxoaren 29an, *Far west* antzezlanagaz. Alzagako azoka zaharrean izango da emanaldia, 20:00etan. Sarrerek 5 euro balio dute. Horrela hasiko da: “*Nekazari bat emaztegiari harrera egitera joango da tren-geltokira, baina bi gaizkilek bahituko dute emakumea...*”.

Info+: www.yllana.com

ASTE SANTUAN ZER DAGO LIBURUTEGIAN?

Aste Santuan ez duzu zertan etxean lotu, Erandioko liburutegiek hainbat tailer prestatu dituzte-eta oportetarako. Alzagako liburutegian apirilaren 14tik 16ra egingo dituzte, eta Astrabudukoan 22tik 25era. Goizez izango dira, 11:00etatik 13:00etara bitartean, eta 6 eta 12 urte bitarteko umei zuzenduta daude. Animatu eta hurbildu!

Info+: liburutegiak.blog.euskadi.net/erandio

2014KO AURREKONTUA INDARREAN DAGO

Aurrekontua 30,4 milioi eurokoa izango da aurten, iaz baino %6,36 gitxiago, eta otsailetik dago indarrean. Ohiko gastu eta zerbitzuetara 14.376.591 euro bideratuko dituzte, giza-baliabideetara 12.173.409 euro, ohiko transferentzietara 1.621.000 euro eta inbertsioetara 2.238.500 euro. Atal guztiek murrizketak jasan dituzte, batez ere inbertsioenak (%25).

Info+: www.erandio.net

ORIENTAZIO JURIDIKOA NAGUSIENTZAT

Nagusientzako orientazio juridiko zerbitzua eskaintzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza sailak, Bizkaiko Abokatuen Elkargoagaz lankidetzan. Zerbitzua erabil dezakete 60 urtetik gorakoek eta aurrez eskatu behar dute hitzordua 900 220 002 telefonora deituta. Bilboko Lertxundi kaleko 14.ean da zerbitzua, goizez.

Info+: www.erandio.net

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tf-944305243/ 607952977-6 regaralzar@gmail.com
www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA



BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com



Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

IGOGAILUA SOPELA ETA LARRABASTERRA ARTEAN

Igogailua Iberre Institutuaren ondoan eraiki dute, eta Sopelako herrigunea eta Larrabasterra banatzen dituen aldapa leuntzen lagunduko du. Horrez gainera, igogailutik metro gutxira dauden Osasun Zentrora eta Nagusien Etxera errazago heldu ahal izango da Larrabasterratik. Igogailuaren aurrekontua 225.840 eurokoa izan da, panoramikoa da eta erabilera doakoa izango da. Ordutegia honakoa: goizeko 07:00etatik gaueko 23:00 arte.

BERTOKO MUSIKA-TALDEAK JAIETAN

Izen handiko musika taldeek jotzeaz gainera, bertokoek ere oholtzara igotzeko aukera izango dute aurtten. Hala, talde hasibarriek euren lanak aurkezteko aukera izango dute. Horretarako, taldeko partaideetako batek, gitxienez, Sopelan erroldatuta egon behar du. Interesatuak euren materiala aurkeztu beharko dute apirilaren 20a baino lehen, Kurtzio Kultur Etxean. Izena emoten dutenen artean zozketa egingo dute, eta irabazleek Sopelako edo Larrabasterrako jaietan jotzeko aukera izango dute. Euskaraz abesten duten kontuan hartuko da.

Info+: www.sopelaudala.org

EMAKUME GAZTEEN DIAGNOSTIKOA EGITEN

Sopelako Udalak emakume gazteek pairatzen dituzten desberdintasunen gaineko diagnostiko partehartzailea ipini du martxan. Horretarako, udalerriko 12 emakume gazteri elkarrizketa sakonak egingo dizkiete, eta ondoren, gai horretan sakontzeko eztabaidak taldeak egingo dituzte. Prozesu guztia irailera arte luzatuko da. Horregaz guztiagaz, feminismoaren inguruko hausnarketarako eta formakuntzarako gunea sortu eta eztabaidak sortzeko topalekua eraiki gura dute. Proiektua Sopelako Udalak eta Emakundek finantzatuko dute.

Info+: www.sopelaudala.org

Auzokideen skate-parkea Sopeloztarrek erabakiko dute non eta zelan egin behar duten azpiegitura barria



Sopelako Udalak auzo-bilera egin zuen martxoaren 14an herritarren iritzia jasotzeko

Sopelak skate-park barri bat hartuko du etorkizun labur batean. Horretarako, 250.000 euroko inbertsioa egingo du Udalak, eta kokagunea auzokidez osatutako talde batek erabakiko du. Udaletik azaldu dutenez, talde horretako kideek erabaki bi hartu beharko dituzte: *“skate park barria non eraiki behar den eta zelakoa izango den”*.

Hasiera batean, ekipamendu barria Urko paduran eraikitzea aurreikusi zuten, baina Udal-Gobernuak aukera hori bertan behera utzi behar izan du, URAk ezarritako mugek aukera hori baztertzen

zutelako eta paduran hezetasun handia dagoelako azpiegitura egoki bat eraikitzeko eta kirola praktikatzeko. Hala, Sopelako Udalak balizko erabiltzaileen iritzia jaso zuen hilaren 14an, Kurtzio Kultur Etxean egindako auzo-bilera irekian.

Momentuz, skate-park barria egiteko edo lekutzeko hiru aukera mahai-gaineratu dituzte: Arriatera-Atxabiribil hondartzaren aparkaleku zaharrean, Sopelako Balea parkean bertan, edo Barinatxe hondartzaren aparkalekuan. ○

Info+: www.sopelaudala.org

Ondiz Barandalla > Euskal Udalekuak

“Euskal Udalekuek aisialdi hezitzailea eta euskalduna eskaintzen dute”



1.000 ume inguru hartuko dituzte udan. Goiko algortarra eta sopeloztarrak begirale izango dira.

Euskal Udalekuek euskaratik eta euskaraz bizitzeko aukera eskaintzen die 6 eta 17 urte arteko neska-mutil euskaldunei. Horietan parte hartzeko, aldeztu aurretik emon behar da izena, eta arduradunek jakinarazi dutenez, izen-emotea txanda guztiak bete arte mantenduko dute.

—**Zer eskaintzen dute zuen udalekuek?**
—Euskal Herriko haur eta gazteei naturaz inguraturik udako oporrak modu ezberdin batean pasatzeko aukera eskaintzen diegu. Euskal Udalekuek bi ezaugarri nagusi dituzte: aisialdi hezitzaile eta euskalduna; eta Euskal Herri osoko haur eta gazteen topaleku izatea. Egun batzuez bada ere, euskaratik eta euskaraz bizitzeko udalekuak dira, jolasteko, ikasteko, amesteko eta batez ere ondo pasatzeko lekuak. Elkarlana eta aniztasuna oinarri hartuta taldean bizitzeko esperientzia bizi dugu bertan, irudimenari ateak ireki eta lagun artean gozatuz. Egonaldietan, mendi-ibilbideak, jolasak, gaubelak, tai-

lerrak eta beste hamaika jarduera burutzen ditugu.

—**Non egiten dira?**

—Gaur egun, hiru herritan kokatzen dira: Bernedon (Araba), Abaigarren (Nafarroa) eta Goñin (Nafarroa). Euskal Udalekuak ere hainbat aterpetan egin dira urtetan zehar, Saturraranen, Deban, Ozaetan eta Beiren, besteak beste.

«Bertoko arduradunak txoko ezberdinetako bolondresak gara»

—**Eta, nori zuzenduta daude?**
—Euskal Herriko zazpi lurraldeetako 6 eta 17 urte bitarteko haur eta gazte euskaldunek parte har dezakete. Etxe bakoitzeko txandetan, adin-tarte ezberdinentzako eskaintzak egiten ahalegintzen gara. Hartara, familiek adin-tarte bakoitzerako data eta leku ezberdin bat aukera dezakete. Txanda bakoitzean bizpahiru urte tarteko neska-mutilek parte hartzen dute. ○

Info+: www.euskaludalekuak.org

DIDAK hamilton IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhilton.com

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

Gosariak, Pintxoak, Giro eta musika onena ONGI ETORRI!!
Bentatxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

OIARBIDE DEKORAZIOA

- Pladur: Tabikeak, zapaia, baldak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoiarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, 48993 GETXO

uk zure publizitatea hemen!
94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

ASTE SANTUKO KOLONIEN BEHIN BETIKO ZERREDA

Berangoko Kultur Etxeak martxoaren 14an argitaratu zuen Aste Santuko kolonien behin betiko zerrenda; eta guztira umeentzako 200 leku zozketatu dituzte. Aurtengo edizioan, aktibitateek ipuinaren munduaren inguruan jardungo dute. Horrez gainera, urteera bi egingo dituzte: bata Tximiparkera, txikienentzat bideratuta egongo dena; eta bestea Pagasari mendira, gazteentzat, abenturazko hainbat ekintza egin ahal izateko. Koloniak apirilaren 22tik 25era bitartekoak izango dira.

Info+: www.berango.net

ELIKADURA ONAREN ALDE IPUIN KONTALARIAGAZ

Apirilaren 6an, domeka, gaztetxoek elikadura gozo eta osasungarria zer den ikasteko aukera izango dute Berangon. Izan ere, Iker Diazek gai horri buruzko euskarazko hainbat ipuin kontatuko ditu, *Eko abestiak* deritzenak. Horiek entzun gura dituenak Berango Antzokira hurbildu beharko du aipatutako egunean, arrastiko 18:00etan. Sarrera doan izango da.

KINTOPEKOEN ZALDI PROBAK PROBALEKUAN

Apirilaren 4an, 5ean eta 7an kintopekoen zaldi probak egingo dituzte Berangoko probalekuan, Torrekolanda Herri Kirol Taldearen ekimenez. Txapelketan parte hartzeko, zaldiek mikrotxipa izan behar dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

uk

zure publizitatea hemen !

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Berangoko maskarada Otxandategi Dantza Taldeak Zuberoako antzezpena egiten du urtero

Guztira 80 pertsona inguruk parte hartzen du antzezpenean

Urtero legez, Zuberoako maskaradaren eta zanpantzarren erakustaldia egin zuten Berangoko Otxandategi dantza taldeko kideek.

—**Zergatik Zuberoako maskarada?**
—Beno, esan dezakegu Euskal Herriko iñauterietako famatuenak direla. Era berean, Euskal Herri osoko probintzia ahaztuenetako folklorea erakutsi gura izaten diegu Berangoko herritarrei.
—**Loturarik duzue bertoko talderen batekin?**
—Bai, lotura estua gainera. Urte asko

daramatzagu Zuberoara joaten ohiturak ikasteko eta bultzatzeko asmoarekin.
—**Zuberoatik talderen bat etortzen da Berangora erakustaldi horietan parte hartzera?**
—Bai, Titika Errekaltan eskutik ikasi genuen Zuberoako maskarada. Aldi askotan etorri izan da gure herrira erakustaldiak egitera, eta gu ere askotan joan gara hara ikastera.
—**Zelakoa da auzokideen harrera?**
—Ezin dugu esan Berangon harrera txarrik egiten digutenik. Urte asko daramatzagu gure folklorea herriari erakusten. ○

[Plentzia]

J. Agirre eta D. Crestelo > Kandelaria kultur elkarteak “Kandela Egunean giro berezia sortzen da Plentzian”

Sagardotegiko menua egongo da bazkaltzeko, eta txartelak aldeztu aurretik eros daitezke

Plentziako Kandelaria Kultur Elkarteak Kandela Eguna antolatu du apirilaren 12rako. Beste urte batez, 700 pertsonentzako egun osoko egitaraua eta 120 laguntzako herri-bazkaria prestatu dute; elkarteak kideek adierazi duten legez, *“eskualde osoko eta kanpoko jendea gonbidatuta dago!”*.

—**Zer suposatzen du Kandela Eguna?**
—Egun berezia da Plentzian, ondo pasatzekoa, baina elkartasuna helburu duena. Herrian beste hainbat ekimen egin dira helburu beragaz, baina hau da apustu handiena duena.
—**Elkartasuna da egun horren helburua beraz...**

—Bai, euskal preso politikoez elkartasuna da helburua, baina gero ikusi dugu herriko elkartasuna Kandela Eguna-rekiko ere oso handia dela. Bestela ezinezkoa litzateke horrelako proiektu bat aurrera ateratzea, herri honetan behintzat. Poztasunez hartzen dugu herriak adierazi duen elkartasuna. Bete behar di-

ren lan guztiak herriko jendeagaz betetzen dira, eta hori oso positiboa da.
—**Zer prestatu duzue aurtengorako?**
—Umeentzako jolasakaz emongo diogu hasiera egunari, goizeko 11:00etan. Ondoren, Getxoko Herri-Kirol taldearen erakustaldia izango da, eta umei begirako herri-kirolak antolatuko dituzte. Horren ostean, herri-bazkaria egingo dugu.

«lazko harrera ikusita, aurtengoan apustu handiagoa egin dugu»

Aurtengoa ezberdina izango da, sagardotegiko menua egingo baitugu; hala ere, barazkijaleentzat eta umeentzat menu bereziak prestatuko ditugu. Jarraian, Urdu-lizko folk-talde batek kontzertua emango du, eta ondoren mus-txapelketa izango dugu. Arratsaldean, Irrien Lagunek saioa eskainiko dute. Horrekin batera, herriko alde zaharrari bizitza apur bat emoteko, herri-poteoa egingo dugu, eta azkenik, gauean kontzertuak izango ditugu, Gubernors eta Garilak 26 taldeekin. ○

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



UKnatura

ZITEK PORTUGALSTE
ESCUOLA SUPERIOR DE NÁUTICA, PORTUGALSTE
MARIA DIAZ DE HARO, 68
48960 PORTUGALSTE (BIZKAIA)

2013-2014 KURISOA

- *BIOERAKUNTZA TALDEAK
- *ARTISAU YABOIAK ETA KOSMETIKOAK
- *BIOERAKUNTZAKO PROIEKTUAK
- *ENERGIA BERRIZLAGARRIAK

etxeko kaxak eta askoz gehiago.

www.uknatura.org 092705471 / 646742241





COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industriak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com



zaindu

Esku Terapia Zentrua
Osteopatia · fisioterapia

Ane Nafarrate Martin

Doctor Ianda 4, Sopela
Telf.: 946026779



22 UK

UK 23

OPORRETAN TXANGOAN
JOANGO DIRA UMEAK

Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizko lehen hezkuntzako ikasleek aurtengo Oporretan Txangora ekimenean parte hartu ahal izango dute. Irteerak apirilaren 23an, 24an eta 25ean izango dira, egun osokoak. Horietan, neska-mutilak Karpin Abenturara, Aresketamendi parkera eta Eureka! Zientziaren kutxagunera joango dira. Interesatuak martxoaren 24tik 26ra bitartean emon beharko dute izena Uribe Kostako Mankomunitateko Zerbitzuan. Adi ibili, parte hartzeko leku mugat dago eta!.

Info+: www.uribekosta.org

AURREKONTUAK ONARTU
BARIK GORLIZEN

Atzera bota dituzte Gorlizko EAJk aurkeztu dituen aurrekontuak, Bilduren eta Talde Independentiaren kontrako botoakaz. Aurrekontuek 6,9 milioi euroko gastua aurreikusten zuten. Bilduk gizarte politiketan inbertsio gehiago eta Gaztetxean 20.000 euro inbertitzea exijitu du, besteak beste.

SUKALDARITZA IKASTEKO
KURTSOAK BARRIKAN

Sukaldatzen ikasteko ikastaro bi egingo dituzte Barrikan. Kurtsoak lau saiokoak izango dira, apirilean eta maiatzean. Horietan parte hartzeko leku muga idago, horrenbestez, apirila baino lehen izena emon. .

Info+: www.barrika.eu

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Gorliz

Bertoko euskara eta ahozko ondarea
ezagutu gura dutenentzako ikastaroak



Eskolez gainera, txangoak egingo dituzte: itsasbazterrera eta inguruko auzoren batera

Gorliz bertoko euskara, ahozko on-darea eta toponimia ezagutzeko ikastaroa egingo dute; bi orduko lau saiokoa izan-go da: maiatzeko lau eguaztenetan (hau da: 7, 14, 21 eta 28), 18:00etatik 20:00etara. Ekimena Gorlizko Udalak antolatzen du, Uribe Kostako Manko-munitateko Euskara Zerbitzuaren bitar-tez, eta eskolak Sertutxenan emongo di-tuzte. Ikastaroa udalerriko herritar eus-kaldunei eta, oro har, interesa duten guz-tiei zuzenduta dago. Izena emoteko uda-lerriko kultur etxera joan behar da, maiatza baino lehen. Matrikulak 20 euro balio ditu.

Ikastaroan Gorlizko eta eskualdeko euskaldun zaharrendik jasotako eus-kara, ahozko ondarea eta leku-izenak a-zalduko dituzte. Horretarako, azalpenak euskaldun zaharren bideo eta audio gra-bazioakaz osatuko dituzte. Ezaguarri gra-matikal orokorreaz gainera, Gorlizko hainbat tradizio ere azalduko dituzte.

Hori guztia, udalerriko auzokideek izan duten bizimoduan oinarrituta egongo da, bai baserrian baita itsasoan ere.

Horrez gainera, oraindino zehazteko dauden zapatu goiz bitan txangoak egin-go dituzte Gorlizmendi elkarteagaz bate-ra, bata itsasbazterrera, eta bestea orain-

«Ikastaroak jendearen
ezagutza aberasteko eta
udalerriko hainbat mito
zuzentzeko balioko du»

dino ere zehaztu barik dagoen udalerriko auzo batera. Txango horien egitasmoa-ren izena “*Gure etxeak euskaraz, euskara gure etxea*” da, eta horietara edonor joan daiteke. Txangoen helburua udalerrriaren beste ikuspegi bat ezagutzea da, egunero-kotasunean pasatzen dituzten bide eta inguruetatik igaroko direlako, eta ingu-ruaren gaineko nondik norakoak emon-go dituztelako, besteak beste, zer aldatu den eta izenen jatorria azalduz . ○

Mar. 24 - Api. 7

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

PLENTZIA
► **Emakume begiradak.** Martxoaren 28ra arte, 11:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Goñi Portalen.

GETXO
► **Euskal akuarelarien elkarte.** Apirilaren 6ra arte. Algortako Torre-ne-aretoan.
► **Farizaren olioak.** Martxoaren 28tik apirilaren 30era. Villamonte kultur etxean.

ANTZERKIA

ERANDIO
► **Far west.** Martxoak 29, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrean. 5 euro.

LEIOA
► **Facil (dantza-ikuskitzuna).** Martxoak 28, 20:30ean. Kultur Leioan. 10 euro.
► **Elmer elefantea.** Martxoak 30, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.
► **El regimen del pienso.** Apirilak 4, 20:30ean. Kultur Leioan. 12 euro.

BERANGO
► **Macho-maris.** Martxoak 29, 19:00etan. Berango Antzokian. Doan.

GETXO
► **Aladdin.** Martxoak 30, 18:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 5 euro.

URDULIZ
► **Ikuskizuna: Magia simpatica.** Apirilak 7, 20:00etan. Kultur etxean. Doan.

SOPELA
► **Egun berri bat.** Apirilak 6, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean. Umeek 3 euro/ helduek 5 euro.

Getxoko Romo auzoa sakonago ezagutuko dute berbalagunek

► **Berbalagun-egitasmoa**
Berbatxangoa Romora apirilaren 6an

Udabarrian sartu gara eta txangoak egiteko eguraldi ederra balia dezakegu. Berbalagun egitasmoa lagunak, horren jakitun, beste Berbatxango bat antolatu dute apirilaren 6rako, goizez. Oraingoan Getxoko Romo auzora hurbilduko dira, bertatik bertara ezagutzeko, Aitor eta Iñigo Fernandez de Martikorena romotar anaiek gidatuko dituzte berbalagunak ibilbidean, auzoari buruzkoak kontatuz. Ohi legez, izena emoteko Berbalagun egitasmoa arduradunakaz harremanetan ipini beharra dago, ondoko telefonoen eta helbideen bitartez: 634 410 575 edo berbots@gmail.com, 619 935 541 edo egizu.org, eta 603 894 364 edo aixuizuba@gmail.com.

• **Non:** Romo auzoan • **Noiz:** Apirilaren 6an, goizez

ZINEMA

ERANDIO
► **Laburbira.** Martxoak 27. Tartanga institutuan. Doan.

SOPELA
► **Seis puntos sobre Emma.** Martxoak 27, 18:00etan. Kurtzion.

BARRIKA
► **Horton.** Martxoak 28, 18:00etan. Ander Deuna kultur aretoan.

GETXO
► **La vida de Adèle.** Martxoak 28, 21:00etan. Andres Isasi musika-eskolan. 2,90 euro.

URDULIZ
► **Un pez fuera del mar.** Martxoak 29, 18:00etan. Kultur etxean.
► **La ladrona de libros.** Martxoak 29, 20:15ean. Kultur etxean.

BERANGO
► **Zipi y Zape.** Martxoak 30, 18:00etan. Berango Antzokian.

MUSIKA

GETXO
► **Javier Krahe.** Martxoak 29, 20:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 12 euro.

ERANDIO
► **Dantzaldia: Pergola orkestra.** Martxoak 30, 17:30ean. Altzagako azoka zaharrean. Doan.
► **Musika-eskolaren entzunaldiak.** Martxoak 26, 19:00etan; eta 28, 18:30ean. Astrabuduko kultur etxean.

LEIOA
► **Kalakan.** Apirilak 11, 21:00etan. Kultur Leioan. 10 euro.

PLENTZIA
► **Kantagune: kantujira alde zaharrean.** Martxoak 28, 20:30ean. Eliza enparantzatik. Doan.

BESTEAK

GORLIZ
► **Familiarteko Berbalagun egitasmoa.** Martxoak 26, 17:00etan. Kiroldegian. Doan.

SOPELA
► **Esaera zaharren txapelketa.** Martxoak 29, egun osoan.
► **Herri-lasterketa.** Martxoak 30, 10:30ean.

BARRIKA
► **Herri-ibilaldia.** Apirilak 5, 10:30ean. Udaletxeko plazatik.

GETXO
► **Berbatxangoa Romora.** Apirilak 6, goizez. Doan.



ERANDIO
► **Kanpomartxo.** Apirilak 13, egun osoan. Santimami auzoan.

SATISTEGI
CAFÉ

ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA




[albuma]



Armarmak legez

Behetik gora ibiltzen dira normalean eskalatzaileak. *Boulderretan*, barriz, gehiago mugitzen dira ezker-eskuin, hormetan alderik alde. Martxoaren 11n *Climbing Girl Party* egin zuten Leioako Sakoneta kiroldegiko *boulderrean*, hirugarrenez. Leioako Mendi Astearen baitako ekitaldia izan zen, Leioa Mendi Taldeak antolatutakoa. Emakume eskalatzaile ugari batu zen, armarmak legez, ezker-eskuin sarea josten.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Elexalde

erdigune bakar zenekoa

Leioan barna ibilaldia gaurkoan: jar zaitez Avanzada parean, Iparragirre hiribidearen erdian edo, eta begiratu udaletxerantza. Orain banan-banan ezaba itzazu eraikinak, eta etxeak. Eta ariketa horregaz batera denboran atzera eginez... Horra Elexalde! Data zehatzik ezin ezarri irudiari, baina gaur-gaurkoz ikuspuntu berdintsuko argazkia ateratzea ia ezinezkoa da, hamaika "oztopok" trabatzen digute-eta ikuspegia...

INDALECIO OJANGURENEN ARTXIBOA

[berbetan]

Arte Ederrak ikasi ditu (EHU) Saioa Aresti Otxandianok (Algorta, 1988). Algortako Satistegi tabernan ikus daiteke egunotan bere erakusketa bat; bere obraren lagin bat. Beka bati esker, BilbaoArten lanean dabil gaur egun. Algortako artista *freelance*-aren beste lan-ildo bat moda da: Jon Elorrieta eta berak Jimy Can Tunis arropa sinadura-marka sortu eta ekoizten dute; orain, 2015eko udabarri-udarako bilduma prestatzen dabilta, irailean aurkeztuko dutena.

Saioa Aresti

Artea eta moda bateratuz

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Artista *freelance*-tzat duzu zure burua.
—Ikasketak amaitzean, lana edo lan-esparru bila hasten zara; egoera dagoen moduan egonda, are gehiago Arte Ederrak ikasi badituzu, ez da erraza... Jon Elorrieta lankideagaz sortutako proiektuaz gainera, nik neure sorkuntzak sustatu gura ditut, unibertsitatean egindakoen bide-tik, eta egitea gogoko dudan horiek zelan eta hala merkaturatu. Erakusketak egiten hasi nintzen, horretan ahalegintzen; horien bidez publikoarengana hurbiltzeko, batez ere herriko publikoarengana, momentuz apurka-apurka ekinez: herritik hasi, gerora, batek daki, aukeran galeria garrantzitsuren batera heltzeko edo...
—Algortako Satistegi tabernan duzu orain erakusketa bat...

—Erakusketa horren ideia hasieran hari batetik hasi zen, baina, beti gertatzen zaidan legez, lanari ekiten diodanean beste hamaika kontu urtetzen dira, gero ez dakit hasierako hura nondik hasi zen ezta non amaitu den ere! Bereziki argiaren gaiari eutsi nion, argia eta naturaren gaiak bildu gura izan ditut. Egia esan, nik beti

erretratuak egiten ditut, oso gogoko dut; baina, abstrakzioa ere jotzen dut. Erakusketa honetako oinarriak abstrakzioa, natura eta argia dira. Gaur egun, abstrakzioa salgarriagoa da, publikoa horretara ohituago ei dago edo gaitasun gehiago ei du... Ez dakit zergatik, ikustekoa edo ulertzekoa zailagoa datekeenean.
—Iazko udan, Torrene aretoan, *Polietico (Politiko-Poetico)* erakusketa kolektiboan ere parte hartu zenuen; beste mota bateko obra erakutsi zenuen han...

“Modak, batetik, hainbat kontu adierazteko eta, bestetik, produktu bat eskaintzeko aukera emoten digu”

—Unibertsitateko jendearen proposamen bat izan zen, lan batzuk aukeratzeko eskatu zieten eta ostean erakusketa egiteko. Ordurako eginda geneuzkan lanak ziren, eskolan aurkeztutakoak, gustuko izan eta erakusketaren gaiari moldatzen ziztaizkiola iritzita, barriro aurkeztea proposatu ziguten. Nire lana jantzi bat lakoa

zen, isiotu eta amatatzen ziren zuntz optikoko aplikazio batzuk zeramatzana. Ninja lako bat zen, hedabideetako ninja-borrokalarien gainean jarduteko asmoagaz sortu nuen; hedabideetako etengabeko borrokagatik kritikatu gura nituen, borrokalaritzat ditudala adierazteko.
—Beste nonbait ikusteko aukera dago?
—Ez, Torrenen amaitu zen. Orain dela urte asko egindako lana zen, eta ordurako ere lar murtxikatuta nuen... Ez zuen eta ez du beste erakusketa batean jartzeko

hainbesteko garrantzirik niretzat, iraungita edo zegoen, ideia hori dagoeneko niretzat ez da baliagarria...
—Areto bat eta taberna bat, bi arte-erakusleaho ezberdin, hartzailea ere bai.
—Eztabaida hori hor dago. Egia da, erakusketa-aretoek, galeriek aukerako publiko finarengana heltzeko aukera eskain-



tzen dizutela, horiek badakite zertara doa-zen. Taberna bat, barriz, publiko zabala-
rengana heltzeko aukera bat da, izan ume
edo nagusi, izan arteak bost axola diona,
apaingarri soiltzat hartuko duena...

—**Artistaren ikuspuntutik, zein kritika
duzu erakusketa-eremuekiko?**

—Alde batetik, aukerako publikoa izatea-
ri ondo deritzot, azken batean, arte-ikus-
pegiagaz beren-beregi hori ezagutzera doa-
zen horiengana zuzentzen, mugatzen zara
eta horri men egiten diozu... Publikoaren
galbahea edo “garbiketa” egiten dute, eta
alde horretatik ondo. Baina, bestetik, txar-
to deritzot, artea mundu guztiari heldu
beharrekotzat jotzen delako; obra hori zu-
re espresio-modua da, zeure adierazpen-
bidea, eta guztiengana heltzea gura duzu;
batzuek hizkuntza hori hobeto ulertuko
dute, besteek ez... Hori kontuan hartu be-
harko duzu, hori onartzeko prest egon be-
har duzu, hau da: ulertuko dutenengana
eta ez dutenengana ere heltzeko eta onar-
tzeko prest egon, ala mugatzea gurago eta
ulertuko dutenak bakarrik helburu izan.

—**Eta zelan erabakitzen duzu zuk hori?**

—Oso zaila da... Altxatzean dudan gogo-
aren arabera! Batean, *“pikutara! Ez dut na-
hi inork nire ezer ikustea! Dakien jendeak
bakarrik esan diezaidala zer uste duen...
Hori baino ez dut nahi!”*, bestean: *“hau
egitea gogoko dut, hau egin gura dut; bardin
dit! Mundu guztiak ikustea gura dut! Egiten
dudana gustuko dut, eta badut neure buru-
arengan konfidantza...”*. Zaila izaten da au-
keratzea, erabakitzea...

—Modaren bidea hartu duzu. Zergatik?
—Hori ere unibertsitateko kontu batetik
hasi zen; modaren esparrua beste adieraz-
pen-bide bat bezala aztertu genuen, beste
arte-disziplina bat bezala jorratu genuen.
Modak hainbat kontu adierazteko eta aka-
buan produktu bat eskaintzeko aukera
emoten digu. Esaterako, arte eremuko ez
den jendeak produktu hori uler lezake...
Arte-lan batetik produktu bat ekoizten
duzu, eta zuzenean kalera eroan dezakezu,
kaletarrei eskaini, jendeak jantz dezakeena

gainera... Argi dago, modaz dihardugula,
produktu eta merkatu zehatz batzuetaz.
Baina guk Arte Ederren eremutik ekin di-
ogu bide horri: Arte Ederretatik datorren
diseinatzailearen zera hori emoten, artea
eransten, lan artistikoagoa, plastikoagoa,
bisualagoa; ez ohiko moda-diseinatzaile
arrunta, produktu bat kate-lanean egiten
duena... Gainera, estanpatua eta estanpa-

“Argi dugu merkatua non dagoen: AEB, Japonia, Londres, Alemania e.a. Berton (...) jendea ez da hain irekia”

tzea ere guk geuk egiten ditugu, hasiera-
hasieratik hasten gara: ehunaren koloretik
arropa jantziko duen pertsonari zelan lotu
dakiokeen pentsatzeraino; gauza are gehi-
ago adierazteko modua iruditzen zaigu.
Sasoi hartan hala hasi ginen, eta ondo joan
zitzagun, komunikabideen edo sare sozia-
len arreta eta harrera ona zuen, eta, ondo-
rioz, proiektu honegaz aurrera egitea era-
baki dugu. Erantzuna lortu dugu, berba-
rako: Cibelesera joan gara, Valentziako
Fashion Week-era ere bai...

—**Jimmy Can Tunis da zuen arropa sina-
dura-marka; zergatik izen hori?**

—Izena aukeratzeko buruhauste eta buru-
komin nahiko izan zegituen! Jimmy bion
ekarpenakaz sortutako pertsonaia da, ze-
lanbaiteko komiki-pertsonaia; sorreran
Jimmy Devil pertsonaia zen... Nolabaite-

“Modelo pertxaren prototipoa ez dugu inoiz gogoko izan; gaixo, jonki estetika iragan bihurtzen ari dela uste dut...”

ko istorioa kontatzen du, hala sortu gura
genuen: pertsonaia hori Bartzelonan zego-
en Can tunis auzotik irtetzen da, katalanez
Atunez etxea edo esan gura du; gaur egun,
auzo hori desagertuta dago, “garbiarazi”
dute, gizartearen hondakindegintzat edo
zuten, inork ikustea gura ez zutena... Gi-
zartearen hondakin hori, litzateke Jimmy.

Eta hala gerora bera izango da istorioa
kontatzen duena, Jimmy Can Tunisen
eskaintza osoa sortzen duena...

—**Eta Jimmyk Valentziako Fashion
Week-era eroan zintuzten iaz. Ateren bat
zabaldu dizue horrek?**

—Bigarren bilduma aurkeztu genuen
han, 2014ko udabarri-udarakoa. Harrera
ona izan zuela esan daiteke, jendea harri-

tzea lortu zuen. Baina saldu?! Bat ere ez!
Gure eskaintza ezagutzera emoteko balio
izan digu, hainbat dendagaz harremana
egiteko... Arropa oso deigarria da, oso des-
berdina; ez du edozeinek... Badakigu mer-
katua non dagoen: AEB, Japonia, Lon-
dres, Alemania, Madril edo Bartzelonan
zertxobait... Inguruotatik ez dago hain he-
daduta halako moda-eskaintza, jendea ez
da hain irekia... Ez dakit... Halako auke-
rek zure eskaintza ezagutzera emoteko ba-
lio dute, ostera, saltzeko ez dute balio,
Madrileko Show Roomen ere ez genuen
ezer saldu. Saltzea oso zaila da! Errazagoa
da sare sozialen bitartez ezagutzera emo-
tea... Halere, egia da, desfile bat egin du-
zunean, serioago edo hartzen zaituztela.
Argazkiak zure etxean ateratakoak izan ala
pasarelan egindakoak izan ezberdin ikus-

**keztu zenuten ala Jon Fizegaz? Zelako
esperientzia izan zen?**

—Ez, Jon Fizegaz orain dela urte batzuk
jardun genuen elkarlanean edo, uniberts-
itatearen bitartez. Egia esan, beragaz izan-
dako harremana ez zen esperientzia ona
izan. Are gehiago, Jon Fizegaz lan egin du-
en jendeak, oro har, esango nuke, ez duela
harreman onik beragaz. Gizon hori, nire-

“Jendea irekiagoa izatea aldarrikatzen dut, bai estetikari dagokionez, baita orokorrean ere”

tzat behintzat, ez da ezeren eredu. Ordu-
an, hutsetik hasitako neska-mutil danak
ilusio biziz geunden, lan asko eta handia
egin genuen... Eta hara Jon Fiz... Mundu
osoak egiten dio bere lana horri, ez dio
inori ezertxo ere ordaintzen, eta abarren-
gatik ez da eredu! Bestalde, Cibelesen ez
genuen bildumarik aurkeztu, Show Roo-
mean parte hartu genuen, Valentzian aur-
keztutako bilduma salgai ipini genuen...
—**Zertan oinarritzen zarete, zeintzuk
dira zuen inspirazio-iturriak?**
—Kkaleko edo arropa urbanoa da, 80.
hamarkadatik gaur arteko kale-estilismoe-
tan oinarritzen gara. Azken bilduman ibe-
riar gaian ere oinarritu gara, ijito kulturari
ere bai. Oro har, natura eta gizarte-ekint-
zak izaten dira gure iturri. Bilduma bakoi-
tzak horietan oinarritutako zerbait berezi-
tua izaten dut; esaterako, gaur egun pil-
pilean dagoen gairen bat du ardatz.

Hurrengo bildumak, irailean aurkeztuko
dugun 2015ko udabarri-udarakoak, ustel-
keria, paradisu fiskalak eta kontu horiek
izango ditu ardatz.

—**Eta non dituzue salgai zuen diseinuak?**

—On-line denda zabalduko dugu eta
eskariaren arabera ekoitziko dugu; arropa
oso bereziak, ehundura oso onekoak eta
oso garestiak direlako. Ekoiztea bakarrik

oso garesti zitzagunez, ahalik eta kalitate
handiengan ekoiztea erabaki genuen, iza-
tez garestia bada behintzat perfektu saltze-
ko. Horregatik eskariaren arabera ekoitzi-
ko ditugu; eskatu eta neurrirra egin.

—**Zenbat euroz ari gara?**

—Adib.: gizonentzako praka batzuek 320
euro inguru; arropa oso garestiak dira, bai.
—**Moda eta neurria aipatuta, eztabaida
nagusietako bat aipatu barik ezin utzi:
gaixo itxurako modelo argalegiek gizarte-
ratzen duten irudia, estetika-betebeha-
rrak e.a. Zer deritzezu?**

—Modelo pertxaren prototipoa ez dugu
inoiz gogoko izan; argal-argala eta “hanka-
palua” inoiz ez; biribildunedun emakume-
ak, emakume biribilak gurago izan ditu-
gu... Zentzu horretan modaren mundua
aldatzen dabilela esango nuke: diseinatzai-
le asko irudi horregaz apurtzen ari da,
nahiz eta oraindino egon badauden mo-

delo argal anorexikoa, pertxa-makila ere-
duari jarraitzen diotenak ere bai. Valen-
tzian modeloak esleitu zizkigunetan pare
bat edo aldatu genituen; aukeratzeko ze-
goenaren artean apur bat behintzat hau-
tatzeko aukera emoten dizute. Nire iritziz,
moda hori aldatzen ari da, bueltan dira
80. hamarkadako benetako emakume
modelo haiek; Versacek edo Moschinok
ateratzen zituzten haiek, benetako emaku-
me haiek, zer arraio! Egundoko emakume
puskak! Ez oraingo asko legez, Kate Moss
eta, bat-batean ezerk jota jausiko direla
diruditen horiek! Gaixo, jonki estetika
hori iragan bihurtzen ari dela uste dut...

—**Euskal modaz berba egin liteke?**

—Hainbeste desberdintze hori... Nire us-
tez jende onda dago leku guztietan, baita
txarra ere. Hori bai, badakit, Bilbon egin
duten azken kanpainarekin eta, maila ona
eskatzen dutela eta badakite gai honetaz;
gauzak ondo egin gura dituztela ikusten
da. Halere, oraindik urte asko beharko
ditugu. Emoten du aurrera goazela, badi-
rudi ideia piloa dituen jendea dagoela,
baina gero ez dira gauzatzen... Ez da Ma-
dril edo Bartzelona legez, ekitaldi itzela
antolatu eta zabalkunde ederra... Hemen
erdizka legez lotzen da. Badakit Art and
Fashion-en epaimahai kide oso onak egon
direla, partaide oso onak egon direla, bai-
na... Hasibarriak dira eta denbora beharko
dute martxan hartu arte. Baina euskal
moda? Edo Madrilekoa? Ez; parte hartu
duen inor ez delako madrildarra, beraz...
Hainbeste ezberdindu beharra hori... ○

Artistaren ametsak eta aldarrikapenak

—**Zer amets du Saioa Arestik?**

—Nire obraz bizitzea da gogokoen nu-
keena, argi eta garbi, hori da nire ame-
tsa; nire obraz bizi, ez dut aberastu nahi,
bizi ahal izatea baino ez. Horretarako

jendea nire obra ezagutzen hasi dadila;

gero lanak saltzen hasi... Gustu kontue-
tan hamaika kontu daude, badakit ni
baino jende hobeagoa badagoela, baina

kontua da jendeak ezagutu behar zai-
tuela eta erabakitzea *“tipa hau ezagu-
tzen dut, badakit nor den, eta bere lanen
bat nahi dut...”*

—**Zer aldarrikatzen duzu?**

—Jendea irekiagoa izatea aldarrikatzen
dut, bai estetikari dagokionez, bai oroko-
rrean ere. Gauzei horrenbesteko beldu-
rrik ez izatea, emoten du kalean norbait

ule larrosagaz ikusi eta ikaratu egiten
garela! Beti txarrerako kritikara jotzen
dugu, kritika konstruktibora baino! Esan
beharrean: *“Danok uniformatuta joan
baino, zein ederra: jende ezberdina dago
kalean, egundokoa!”* Hori baino, *“a ze
piura!”* esaten da beti; horrek min emo-
ten dit, benetan; badirudi gurean aurrera-
pausorik ez dagoela!




Gorputz-paisaiak

Sara de Diegoren argazki-lana ekarri dugu orrialdeotara, beste behin. Arte Ederrak eta argazkilaritza (Gasteiz) ikasi ditu sopeloztarrak, eta ondoren ikusgai duzuen lan honetan hurrengo hausnarketa edo helburua bilatzen du, bere ahotan:

“argazkiok gorputzaren eta berorren abstrakzioaren ideiatik abiatzen dira, gorputz-paisaiak sortuz: mendiak, dunak e.a. Azken finean, gorputza bere testuingurutik atera eta paisaia itxurazko sormenak eskainiz”.

Argazkiak: **Sara de Diego**







Urdulizko ospitale barria, Uribe Kosta osorako zerbitzua

Ospitalera iristeko errepide barriak hautsak harrotu ditu Sopelan

Osakidetzak hurrengo urte hasieran, 2015eko hastapenetan zabaldu gura du Urdulizko ospitale barria. Lan eta lan dabil tza eraikina eta sarbideak egiteko, eta badago hika-mika: sopoloztarrak ez daude pozik, euren herria trafiko hori dena jasateko prestatuta ez dagoelakoan.

Uribe Kostako ia biztanle guztiak artatuko ditu Urdulizko ospitale barriak datarren urtetik aurrera (lortu ditugun datuen arabera denak Erandiokoak izan ezik), baita Mungiakoak ere: guztira 167.000 laguni eskainiko die zerbitzua. Besteak beste, Gurutzetako ospitaleari (Barakaldon) lan-zama kendu gura dio Osakidetzak, ospitale barrira bideratuko dituzte eta zerbitzuen eta ebakuntzen %20 inguru. Aurrekontua 78 milioi eurokoa da.

Urdulizko Marutze auzoan eraikitzen ari dira ospitalea, baina bertaratzeko sarbide egokirik ez dago gaur egun, udalerriko errepide nagusia trenbide-pasagune batek moztzen duelako. Hori dela-eta, Uribe Kostako korridoreagaz bat egingo duen errepidea eraikitzen hasi dira. Kilometro bateko luzera izango du, norabide bakoitzean errei bi, eta espaloiak zein bazterbideak: Marutze, Torre Barri eta Osteiko eremuak zeharkatuko ditu, azken hori Sopelako mugan. Hiru fasetan egingo dute errepidea eta Udalak hirurak lizitatu ditu. Areago, Torre Barriko zatiaren lanak daborduko abiatu dituzte.

Bakoitza egiteko sei eta zortzi hilabete artean beharko dituzte, baina lanek denboran bat egingo dute, aurtan amaitu ahal izateko; izan ere, datorren urte hasieran zabaldu gura dute ospitalea. Torre Barriko



Ospitaleko lanak gaur egun

zatiak 800.000 euroko aurrekontua dauka (BEZ gabe), Marutzekoak 1,2 milioi euro eta Osteikoak 1,5 milioi euro. Era berean, ospitaleak eragingo duen aparkatzeko arazoari aurre egin guran,

Ospitalera iristeko errepidea egiten hasi dira eta aurtan amaitu gura dute

Torre Barri inguruan 400 autorentzako udal-aparkalekua eraikitzea aurreikusi du Udalak. Lurzoru azpian eraikiko luke eta lanak aurtan esleitu gura ditu, urte bi barru eraikitzen hasteko.

Ospitalerako sarbideak, ordea, hautsak harrotu ditu alboko herrian: Sopelan. Udalak uste du herriak ezingo duela jasan ospitaleak ekarriko duen trafiko handitza. Gatzarriñe eta Olabide kaleetan iga-

roko da errepide barria. Udalaren arabera, “trafikoa nabarmen igoko litzateke Larra-basterra erdialdean”. Bide horrek “abiadura gutxitzeko hamaika baden ditu eta ospitaleko erabiltzaileek hainbat oztopo izango lituzkete: semaforoak, bidegorri bat, zebrabide goratuak e.a.”.

Gainera, ez du bat egiten ospitalearen proiektuagaz. Haren ustez, eraiki duten lekua ez da egokia: “inolako sarbiderik ez duelako eta gunearen ingurumen-garrantziagatik”. Era beran, Olabide kalearen amaieran egingo dituzten obrak ez dituela ordaindu behar adierazi du, errepideak “eskualde-erabilera” izango duelako.

Sopeloztarren ekarpenak
Sopeloztarren iritzia jakin gura izan du Udalak, eta bilera egin zuen otsailean, hain zuzen, herritarrek informatu eta euren iritzia jaso asmoz; horiek ere “oso



Olabide kalea, Sopelan: ospitalerako errepidea bertatik igaroko da

kezkatuta” daudela ohartaratazi du. Hainbat ekarpen egin zituzten. Egoera “konplexua” dela onartzen dute, “ospitalea eraikita dagoelako eta ez dutelako konponbide bideragarriak ikusten”, baina irtenbidea bilatu behar dela uste dute, “ingurumena errespetatu eta auzokideen bizi-kalitatea bermatuko duena”.

Gatzarriñen eraikitzeak diren bidegorria dela-eta, “trafikoa nabarmen handitzen bada beraz erabiltzea arriskutsua datekeela” deritzote, Olabide kalean semaforoak ipini beharra dagoela eta badenak

Sopeloztarrak “oso kezkatuta” errepide barriak sor lezakeen trafiko handitzeagaz

ezin direla kendu. Finean, trafikoa bertatik bideratuz gero auzokideen bizi-kalitateak okerrera egingo duela uste dute.

Hiru eraikin eta ia zerbitzu guztiak
Ospitaleak 36.700 metro koadro izango ditu eta hiru eraikinetan banatuko da: hiru eta lau solairuko garaiera izango duten bloke bi eta dorre bat; blokeek 120 metro luze neurtuko dute. Gainera, lurrazpian

beste solairu bi izango ditu ospitaleak. Azken horietan egingo dituzte aparkaleku bat, errehabilitazio-eremua, botika, azpi-kontratutako enpresa-bulegoak, biltegiak, aldagelak eta sukaldia. Beheko solairuan, barriz, sarrera nagusia, bulegoak, administrazioa, harrera-lekua, kafetegia, bilera-gelak, aretoa, eguneko kirur-

gia-ospitalea, proba diagnostikoen eremua, dialisi-gunea, e.a. Lehenengo solairuan, larrialdietarako sarrera (lurzorua dela-eta beheko solairu baten maila izango du), larrialdigunea, eguneko ospitalea eta kanpokontsulten eremua kokatuko dira.

Urtean 11.450 ospitaleratze, 70.000 larrialdi-egoera eta 9.300 ebakuntza

Azken horiek dorrean egongo dira eta sarrera independentea izango dute; hots, dorrearen funtzionamendua independentea izango da.

Bigarren solairuan, ebakuntza-gelak kokatuko dituzte, baita zainketa intentsiboak ere. Azken solairuetan ipiniko dituzte gaixoen zeto gelak: 216 gela izango ditu ospitaleak eta 800 profesionalak lan egingo dute bertan. Aurreratu legez, ia zerbitzu guztiak eskainiko dituzte Urdulizen, “puntako teknologia diagnostiko eta terapeutikoagaz”. Urtean 11.450 ospitaleratze, 70.000 larrialdi-egoera, 9.300 ebakuntza eta 144.000 kanpo-kontsulta aurreikusten dituzte Urdulizen. o

Inguruan aparkalekua egiteko asmoa dauka Udalak





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

• 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

• Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

• Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

• Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

• Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

Zabala kaleko 9. zenbakira

MUGITU GARA

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9

ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Bideo-lehiaketa martxan

Gazteak eta enplegu duina ditu ardatz EGK-ak abiatu duen ekimenak



Harremanetarako: komunika@egk.org

EGK-k (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua) "RECACCIONA. Gazteak enplegu duina!" bideo-lehiaketa antolatu du, helburu argi batez: "gazteontzat enplegu duina sustatzeak duen garrantzia erakutsi dezazuela pertsona eta elkarteek, zuen erara. Gure helburua, azken finean, gazteriaren lan-egoera hobetzeko indarrak batzea da, eta gazteak enplegu duintzat ulertzen duguna ezagutaraztea". Horretarako, taldeka (gitxienez lagun bi) ikus-entzunezko lan bat grabatzea proposatzen dute. Gehienez lau minutuko iraupena izan beharko duen bideoa osatu ostean, eta behin izen-emate orria bete, alde batetik, Youtube-ra igo beharko

dute lana taldeek, eta horren lotura komunika@egk.org helbidera bidali; bestetik, DVD euskarrian ere kopia bat bidali beharko dute EGK-ko edozein egoitzatara. Lehiaketan parte hartu gura izanez gero, hori guztia egiteko epea zabalik egongo da maiatzaren 30era arte.

«Lehiaketara bideo-lanak aurkezteko epea zabalik maiatzaren 30era arte»

Gazteei begirako lehiaketa da, eta EGK-k gaztetasunaren muga 30 urtetan jarri du; horrenbestez, adin horretara artekoek parte hartu ahaliko dute. Euskaraz, gaztekeraz edo bi hizkuntzatan izan daitezke; baina, euskararen presentziaren bat bermatu beharko da (adb.: azpitu-luetan, kredituetan, animazioetan...). Sarietako dagokienez, zenbatekoa alde aurretik zehaztutako helburu-proiektuetan inbertitzeko izango da, hala adierazi dute: "enplegu mailan dituzun ideia eta planak aurrera eramateko, ala zure parte-hartze proiektuetan gastatzeko e.a. Adibide gehiago oinarrietan". Hala, lehenengo saria 1.000 euro dira; bigarren saria (publikoarena) 400 euro, eta Ikusleentzat saria 50 euro (bidezko merkataritza edo nekazaritza ekologikoko saltoki batean gastatzeko (aukeran)). ○

Info+: www.egk.org

Melodia, erritmoa iparretik

Kalakan taldeak kontzertua eskainiko du **apirilaren 11n** Kultur Leioan



Sarrerak salgai daude 10 euroan; info+: www.kulturleioa.com

Ahotsak, perkusioak eta haize musika-tresnak dira Kalakanen oinarri bakarrak. Poparen erregina Madonnaren azkeneko mundu-biran parte hartu izanak Behe Nafarroako hirukoteari sona emon badio ere, izana ez dio aldarazi. Halako eskaintza artifiziosuetatik urrun, apaingarri hutsal bari, Kalakanek entzuleak harreman intimoagoa du helburu, "sinpletasuna, dotoretasuna eta publikoari emozioak sorrarazten dizkion komunikazioaren apostua", kan-tu herrikoak mugari, tradizioaren iturritik edan arren berrikuspenean eta etorkizunearan dute begirada; euskara izanik beste ar-

datz garrantzitsu bat... Txalaparta, atabala, pandero, ttun-ttun, danborra –danbolero, danbottiki–, udu, kutxa, tobera, intxaur oskolak, txirula, alboka, flautek eta ahotsek osatuko dute Thierry Biscary, Xan Errota-behere eta Jamixel Bereau musikariek apirilaren 11n, barikua, Kultur Leioan eskainiko duten kontzertua; besteak beste, orain urte batzuk plazaratutako 16 kantu biltzen dituen *Kalakan* (KML Music eta ZTK Diskak, 2010) diskoko hainbat kantu entzungo dira. Ekitaldia gaueko 21:00etan hasiko da eta sarrerak salgai daude 10 euroan. ○

Info+: www.kalakan.fr

diskoak

Odolaren mintzoa
Odolaren mintzoa
Oinuka (Elkar)



Kalean da Luken Arkarazo (Kaki Arkarazo musikari-tek-nikariaren semea) gitarra-jolea buru duen Usurbilgo lau gaztek osatzen duten taldearen izen bereko lehenengo diskoa: bost kantu eta hard-corea oinarri, "letra zorrotz, zuzen, oldartsuak, non askatasunaren beharra, maitasuna, bizi-nahia gai nagusiak, euskal gazteen loturak apurtzeko saiakera batean..."

Zure Mundua
En Tol Sarmiento (ETS)
Baga Biga



Ekorako (Araba Errioxa) reggae edo punk-rock taldearen hirugarren diskoa ska erritmoaz blaituta dator. Euskarazko zein gaztelaniazko abestiak "munduaren egoerari buruzko pentsamenduak islatzeko, bizi ditugun garai iraingarriak erantzun zuzena" emateko sortu dira, doinu alai, dantzagarri eta kutsakorrez aurkeztuta...

Bueltaka
Aingeru Gorrotxategi
Autoekoizpena



Hirugarren lana du folk kantautore gipuzkoarrak. Euskaraz egindako 10 kantuz osatutako diskoa da, musika Gorrotxategi sortu du eta hainbat abestitan Iñaki Mendizabal idazlearen eta Mikel Aiertza bertsolariaren letretan oinarritu da. Lana grabatu eta argitaratzeko autoekoizpenaren bidea aukeratu du oraingoan ere, eta Elkarrek banatuko du.

itoizi gorazarre > espaloian taldea

Gatibu taldeko Haimar Arejita (gitarra) eta Gaizka Salazar (bateria), Alex Arana (ahotsa eta gitarra), Dani Asua (baxua) eta Ander Ertzillak (saxofoia eta kornuak) osatzen dute Espaloian proiektua eta taldea; Itoiz taldearen bost jarraitzaile, helburu jakin batez batu dira: "Itoiz taldearen musikak zuzenean daukan freskotasuna, edertasuna eta indarra jendeari erakustea. Euskaldun guztiona den Itoiz taldearen musika-ondarea ezagutarazi nahi dugu, "Lau teilatu" abestitik haratago. Adin guztietako jendearengana iristeko asmoz, eta batez ere gazteengana". Itoizen (1977-88), Ondarroa-Mutrikuko taldearen bosgarren lanetik (1985) hartu dute izena, eta "edozein herriko jaixetan magia hedatzeko prest" daude...

Info+: www.facebook.com/espaloian

kontzertua > la pegatina

Kataluniako talde ezaguna azken urteotako kanta entzutetsuenak batzen dituen diskoa, *Llovera y yo vere*, aurkezte- ra dator Bilbora. Apirilaren 5ean, zapatua, eskainiko du kontzertua Bilboko Kafe Antzokian, 20:00etan. Sarrerak aurretik erosiz gero 12 euro balio dute, eta txarteldegian 15 euroan egongo dira salgai. Antolatzaileek adierazi dutenez, "900 kontzertu eta lau disko eta gero, Kataluniako talderik esanguratsuenetako bihurtu da. Azken 10 urteetan, 20 herrialdetan izan dira, Hegoamerika eta Asia barne. Honetaz gain, Europako jaialdirik garrantzitsuenetan *yo dute*" eta aurrean Llovera y yo Vera Tourraren barruan Bilbora itzuliko dira apirilean.

Info+: www.lapeгатina.com
www.kafeantzokia.com



Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]


Gutun Zuriako idazleak

“Mugako kontakizunak” haria iruteko **idazle entzutetsuakaz topaldia** Bilbon

VII. ekitaldia izango du martxoaren 27tik apirilaren 6ra egingo den Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiak, Gutun Zuria deritzonak. Aurtengorako Mugako kontakizunak hariak lotuko ditu horren barruan antolatuko diren ekitaldiak eta hitzaldiak. Antolatzaileen esanetan, hari horri tiraka “*marra banatzaileak ikusaraziko dira, herstura eta bortxa baitakarte, eta era berean, identitatearen baieztapena. Hala, zentzu fisiko eta humanoan, Mexikoren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko muga edo Afrikaren eta Europaren artekoa, presente egongo dira*”. Parte hartuko duten idazleen artean daude: Herta Müller (hilak 27; 19:30), Gao Xingjian (apirilak 3, 20:30) eta Orhan Pamuk (apirilak 5, 19:30) nobel saridunak, Ra-

«Alondegia sona handia darien luma ezagunen kupel»

mon Saizarbitoria (apirilak 4, 19:30; Arantxa Urretabizkaigaz elkarrizketan), Txomin Peillen (martxoak 29, 18:30) eta Kirmen Uribe (martxoak 29; 20:00) aukeratu dituzte euskal literaturako enbaxadoretzat, eta horien albotik Lydia Cacho (martxoak 28; 19:30), Sergio Gonzalez Rodriguez (apirilak 3, 19:00), Claudio



Orhan Pamuk izango da hizlarietako bat

Magris (marxoak 30, 19:30) eta Juan Goytisolo (apirilak 6, 19:30).

Hitzaldi ostean, idazleak eta irakurleak alkarregaz egoteko aukera eskainiko dute; horrez gainera, gaiari edo idazle bati lotutako zinema-eskaintzak (Gao Xingjianen *Le deuil de la beauté* pelikula; apirilak 2, 20:00; apirilak 3, 17:30), musika-literatura ikuskariak (K. Uribe, M. Urdangarin, R. Rueda, Bingen Mendizabal, *Jainko txiki eta jostalari hura*; martxoak 29, 21:00) zein Matxalen Bilbaoren *Sast!* ikuskizunak osatzen dute egitaraua, besteak beste. Merke, baina sarrerak salgai daude. o

Info+: www.alhondigabilbao.com/eu

liburuak



Libertitzeaz
Antton Luku
Pamiela

Amikuzeko Arberatzen bizi den Antton Luku (Kalifornia, 1959) bere azken lanaz dioenez “*esperientzia pertsonal eta lekukotasun anitz erantsiz, antzerki-entseguetako geletan garatu soa du pausatzen...*”; libertimenduz, inauterikarietako bolantak, dantzari senaz harago ezkuta dezakeenaz...



Orbel aspiko haikuak
Josu Jimenez Maiak
Denon artean

“*Denetarikoa esperientziak bildu ditu, haikuen ohiko forma labur eta soiletan...*” Josu Jimenez Maiak (Iruñea / Berriozar, 1967) bigarren haiku-lan honetan; Maite Ramos Fernandezek tinta japoniarrez egindako irudiek, haiku-interpretazioak, ‘haiga’ deritzenek osatzen dute.

[kirola]

Leire Trabado > Getxoko Cuerdeando kluba

“Asko gustatuko litzaiguke txapelketa gehiago antolatzea aurrera begira”



Arabatik, Bizkaitik eta Gipuzkoatik etorritako 250 kirolarik parte hartuko dute torneoan

Leire Trabado Cuerdeando kirol-klub getxoztarreko entrenatzailea eta presidentea da. Talde horrek, tokiko beste klub batez batera, gimnasia erritmikako torneo antolatuko du martxoaren 30ean, domeka, Algortako Fadura kiroldegian. Torneo goizeko 09:00etan hasiko da.

—Martxoaren 30ean Getxoko Gimnastika Erritmikako I. Torneo antolatuko duzue Getxoko Gimnastico Femenino klubagaz batera, zelakoa izan da orain arteko lanketa hori aurrera eramateko?

—Lan asko egiten ari gara torneo aurrera eramane ahal izateko, eta bi klub arteko harremana apartekoa da. Txapelketan izea emateko epea bukatu da jada, eta orain txapelketarako laguntzaile bila gabiltza.

—Zer motatako txapelketa izango da?

—Maila ezberdinetako kirolariak izango ditugu. Alde batetik, eskola kirolekoak; eta bestetik, amateur kirolariak. Ez da txapelketa ofiziala izango, eta bi modalitate izango ditugu: taldekakoa eta banakakoa.

—Izena emateko epea bukatu da beraz, zenbat pertsona arituko dira lehiaketan —Kirolariak 8 eta 30 urte bitartekoak izango dira, eta guztira Bizkaitik, Gipuzkoatik eta Arabatik etorritako 250 parte-hartzaile izango ditugu. Horregaz batera, 8 epaile arituko dira lanean.

«Pilotak, sokak, uztaiak eta mazoak darabiltzaten modalitateak egongo dira»

—Aurrerantzean txapelketa gehiago antolatzea aurreikusi duzue?

—Asko gustatuko litzaiguke txapelketa gehiago antolatzea, baina orain gure lehenengo txapelketa prestatzen ari gara eta espero dugu dena ondo egotea. Txapelketa hau antolatzen lagundu diguten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet, hala nola, Getxoko saltokiei (Enmarcaciones Kincho eta Nuria Ibeas ileapaindegia), Nuestra Señora del Rio ardandegia, Layfil, Asmivo Ikastegia, Kaiku eta, Getxo Kirolak. Asko gustatuko litzaiguke errepikatzea, bai noski! o

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Anabel Sanz > Abortatzeko eskubidearen aldeko plataformako kidea

“Abortoa kode penaletik atera behar da, bestela ez da eskubide izango”

FeministAlde talde feministako eta Abortatzeko eskubidearen aldeko plataformako kide da Anabel Sanz. Martxo hasieran hitzaldia emon zuen Getxon, sexu eta ugalketa eskubideei eta Abortoaren legearen erreformari buruz.

—*Gure gorputza, gure erabakia* leloak indarra hartu du azken aldian?

—Bai, Gallardonek planteatu duen lege aurre-proiektua dela-eta ozen eta argi aldarrikatu beharra ekarri du, emakumeon erabakitzeko eskubidearen aurka doan aurreproiektua delako.

—Zeri erantzuten dio erreforma horrek?

—PPk gizartea antzinako eredu batera eraman nahi du; ez bakarrik emakumeon eskubideei dagokienez, beste hainbat esparrutan ere. PPkoak sistema kapitalista eta patriarkalaren defendatzaile sutsuak dira, euren politikek berdintasunaren eta eskubideen arloan emandako aurrerapau-soen aurka egitea dute helburu. Eliza eta ultra sektoreen interesei jarraituz gobernatzen dute. Elizak, kapitalismoak eta PPk emakumeak etxean nahi gaituzte, zaintza eta etxeko lanak egiten. Uste dute emakumeok lan erreproduktiboa egin behar dugula, bestela eurek nahi duten sistemak eta gizarteak ez luke funtzionatuko... Sistema kapitalista eta familia tradizionala defendatu nahian dabilta.

—Gaur egungo legea nahikoa da?

—Orain dagoen legeak emakumeen erabakitzeko eskubidea errespetatzen du lehenengo 14 asteetan, bestela ez. Beraz, mugimendu feministatik lege hori atera zenean esan genuen bezala, ez da nahikoa. Feministok beti aldarrikatu dugu eta ho-



Anabel Sanz

rrera jarraitzen dugu: abortatzea eskubide izan behar da, beraz, abortoa kode penaletik kanpo atera behar da; bestela ez da eskubidea izango. Horretaz gain, abortoak osasun sistema publikoan egin beharko liratekeela ere esan genuen momentu hartan, eta esaten jarraitzen dugu: abortuak libre eta doakoa izan behar du, eta osasun

“Emakumeon eskubideen aurka egitea berdintasunaren aurka egitea da eta, horren aurka egitea, indarkeriaren alde egitea da”

sistema publikoan egiteko bermeak ezarri behar dituzte erakundeek.

—Europako hiru andretatik batek erasoren bat jasan du. Loturarik daukate legearen erreformak eta datu horrek?

—Bai, Europa mailan egindako ikerketak datu larriak azaleratu ditu, baina ez ezagutzen ez genuenik: emakumeonganako

indarkeria eta diskriminazioa oraindik arazo larriak direla; hori behin eta berrito esaten dugu feministok. Emakumeonganako indarkeria zifra larriak izateak eta emakumeonganako eskubideen aurka legeak egitea lotuta daude; dena dago lotuta. Emakumeon eskubideen aurka egitea berdintasunaren aurka egitea da; eta ber-

dintasunaren aurka egiteak emakumeonganako indarkeriaren alde egitea suposatzen du. Emakumeak gizartean eta legeen arabera eskubidedun subjektu moduan ez onartzea indarkeria da. Beraz, horrelako ideiak legeen bitartez gizartean inposatu nahi izateak lagunduko du ikerketak azaleratutako errealitatea indartzen. ○

Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikomitologia.com webgunera jo.



Zezengorri ilustrazioa: Daniel Castello

Zezengorriren olerkiak

Batzuetan, mendira joaten naizenean, kobazulo ezezagunak topatzen ditut. “Milaka aldiz pasatu naiz hemendik eta inoiz ez dut ikusi leize hauxe?” Galdetzen diot nire buruari.


Hori gertatzen denean aztertzen saiatzen naiz, eta horretarako, hasieran, inguruan dauden aztarnak miatzen ditut.

Behin Leizezuloan egon nintzen eta kobazulora hurbildu bezain pronto Zezengorriren trasta basatia entzun nuen.

Ez dago dudarik Mariren aginduz gizakiok lur-azpitik urrun mantentzen gaitu.

Mendeak eman ditu betebeharrak horrekin, eta oraindik dihardu beste munduko sarrera hori, babestu nahian.

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozatzen has zaitezten.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ

Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA



berezi

Hanburesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

Zure publia
hemen agertzea
gura baduzu

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



KAI EDER JATETXEA

Menu ederra itsasoari begira

Tf. 94 677 41 33
Txurrua kalea zenbakirik gabe - PLENTZIA
www.restaurantekaieder.com



GOSARIAK PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)



GURE ETXEA taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Itsasotik kazolara

Abakandoz eginiko luxuzko arroza



Abakandoa da plater honetako osagairik garrantzitsuen

Gaurkoan pintxoak alde batera utzi eta sabela ederto bardintzeko plater-bila joan gara Plentziara, Txurrua kalean dagoen Kai Eder jatetxera hain zuzen ere; eta bertan, aski ezaguna den abakando-paella prestatu gara. Asko dira kostaldeko udal-erri honetako jatetxera aipatu plater dastatu asmoz hurbiltzen direnak, bai horren kalitateagatik, baita kokatuta dagoen leku ezin hobegatik. Paella hau Kai Ederren probatzeko alde zuretik enkargatu egin beharko duzu; baina guk ondorengo lerroetan etxean egiteko emon beharreko pausoak azalduko ditugu. Goazen!

Lehenengo eta behin, buztinezko kazola hartu beharko duzu, bertan berakatz aleak bota, oligo txorrotada bat, eta zatitutako txokoa frijituko duzu. Bitartean,

abakandoak erdibitu eta kazolan sartuko ditugu. Prest izateko, 30 segundotan frijituko duzu alde bakoitzetik. Ondoren, tomate saltsa naturala gehituko diogu, ganbak eta txirlak (almejak) botako ditugu eta sua jaitsiko duzu saltsa loditzeko. Puntuan dagoenean, arroza kazolan botako duzu, eta bertan erretzen izango duzu 30 segundotan. Azkenik, litro bi arrain-salda (foumet) gehitu behar diogu; eta dana 15 minutuan eta 180 gradura sukaldatzen utzi. Hori guztia eginda, gatza bota eta prest izango duzu azkar egitekoa eta goxo-goxoa den plater hau. On egin! o

Osagaiak: 125 gr arroz, berakatz ale 2, tomate-saltsa naturala, oliba-oligoa, txoko 1, 8 txirla, litro 2 arrain-salda, 12 ganba, 500 gr-ko 2 abakando eta gatza



Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9
T. 491 14 87 48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 48
(sarrera, Jata Mendia) T. 460 01 87 48990 GETXO



Croissanterie Briocherie

MONIE JAIA 1
48997 GETXO (BIZKAIA)
CROISSANTERIE-GETXO.BLOGSPOT.COM

94 460 86 48



JUAN-MARI
Harategia eta txarkuteria
ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Libxarriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

**uk zure
publizitatea
hemen !**

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)

Datozen asteotan oso sentibera egongo zara eta edozein komentariok min handia egingo dizu. Egoerak ikuspegi zabaletik aztertu eta ez izan horren hunkibera.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)

Plater gehienak apurtuta daukazu, mahai-tresnen erdia galduta, zartaginak marruskatuta, e.a. Ez duzu uste sukaldeko tresneria barritzeko unea iritsi dela? Eskertuko duzu.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)

Udabarriagaz batera loratuko dira zure lorategiko landareak, baita zure barnea ere. Aztoratuta ibiliko zara eta ingurukoak lotsaraziko dituzu behin baino gehiagotan. Hartu tila bat...

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)

Negu gogorra izan da itsasoaren eta haizearen zakartasun aldetik. Badirudi zu ere apur bat zorotuta ibili zarela. Lasai, badator udabarria eta baretuko dira bazterrak.


HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)

Lagun batek lorak oparituko dizkizu eta pentsatuko duzu udabariaren etorrera ospatzeko dela. Baina inondik inora. Zugaz gustatuta dabil eta susmatu ere ez duzu egin.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)

Joan da hotz krudela eta garaia da ortua antolatzen hasteko. Lurra prestatu, landarak eta haziak erosi eta zoaz ereitera! Ingurukoak irrikan dituzu tomateak probatzeko.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)

Pisukideak kokoteraino daukazu etxea erabat desordenatuta daukazulako, beti zure atzetik ibili behar. Baldar hori! Txukundu eta garbitu behingoz! Eta ez zaitez izan horren zikina!

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)

Aspaldi gustatuta zabiltzan lagun horrek mezua bidaliko dizu bazkaltzera gonbidatzeko. Ez urduritu eta esaiozu baietz, ziur primeran pasatuko duzuela... baietz errepikatu!

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)

Urtarrilean topera hasi zinen kirola egiten: korrika, igeriketa, txirrindula... Baina daborduko nekatu zara? Lasaiago hartu behar zenuke eta astean bizpahiru bider bakarrik praktikatuko.

META



(Irailak 17 urriak 16)

Ondo bizi zara, gero! Martxoan hartu duzu opor, beste guztiak lanean dabilzala, eta Karibetik iritsi eta Aste Santua bertan dago. Inor baino hobeto bizi bazara ez kexatu horrenbeste!

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)

Behin baino gehiagotan oparitu dizkizute landareak, eta guztiak hil zaizkizu. Udabarria datorrela une aproposa izan daiteke barriro saiatzeko. Baina ganoraz zaindu, faborez!

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)

Eguzkia epeltzen hasiko da eta laster estreinatu ahaliko dituzu lorategia eta etxaulkia. Kuadrillakoez inbidiaz begiratuko dizute. Udaldi ederraren hasiera besterik ez da. Gozatu!

"Baratze bat nahi dizut egin
Amets sekretuenekilan
Liliak egin jauntzi ejerrenetan
Mila Kolorez dantzan bihotzetan"

-Piel Paul Bortzaiz-



Laurita Siles, 2014.

Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan




Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Zelan kokatuko zenituzke kenketa eremuan nahasian emon dizkizugun lau pieza zenbakidunak, eragiketak zentzua izan dezan?



gaztetxoak > bilatu eta irabazi

Zein urtaro bizi dugu?

- **Udagoiena**
- **Udabarria**
- **Negua**

La Gusana liburudenda SARIA
Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 944 911 412 **lagusana**

> Aurrekoaren erantzuna: Ruper Ordorikak
> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik***
*deitu telefonoz: 944 911 337

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA *Zaindu*
Osteopatia-Fisioterapia
Doctor Landa 4, SOPELA.
Tel: 94 602 67 79 **zaindu**
Esku Teropia Zentrua
Osteopatia - Fisioterapia

> Aurrekoaren erantzuna: La Venta baino goragotik
> Irabazlea: **Mikel Garaialde***
*deitu telefonoz: 944 911 337

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 944 911 337 telefonora deitu



KARLA LLANOS ETXABEK UTZITAKO ARGAZKIA

Memorias de Getxo bloga

ANDRA MARI KLUBEKO TXAPELDUNAK, 1950

Algorta tren-geltokiko tabako-denda txikiaren alboan atera zuten irabazleek argazki hori. Ereagako Atletismo txapelketan lehiatu ostean egin zuten oroimenerako argazkia. 1950. urtea zen, eta egun hartako lorpen itzela betikotu beharrekoa zen! Izan ere, argazkian dituzuen korrikolariak Andra Mari Atletismo klubekoak ziren eta 1950 hartan Ereagako Atletismo txapelketako irabazle izan ziren; irudian, horrenbestez, txapeldunak garaikurra harro altxatuz! ○

Behean: Joseba Agirre (GB), Andres Onaindia, Imanol Kortabitarte, Patxi Garai (GB), ? .
Erdiko ilaran: ? , Luis Landeta, Julian Villelabeitia, Pedro Maria Rapa (GB), Jose Aginaga, Jose Zalbidea, Jose Antonia “Zizi”, Ramon Bilbao.
Goian: Jose Maria Zalbidea, Andoni Landeta (GB), Ramon Mota, Gabriel Fernandez, Zarandona, Jose Alvarez (GB), Jon Bilbao eta Paco Ahedo.

FERNANDO MADINA > Reincidentes musika-taldeko baxu-jolea eta abeslaria

“Musika hizkuntza unibertsala da, eta guztiz asetzen nau”

Testua: **Iker Rincon** Argazkia: **Salvadorvilla**



Defini egizu zeure burua berba bitan.
Urduria eta alaia.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Woody Allenen edozeinetan; bere pertsonaiak benetakoak direlako, eta ez gezur hutsezkoak.

Badaukazu ohitura txarren bat?
Gehiegi afaltzea.

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?
Pertsona bakarra aukeratu beharko banu ezingo nuke nire bikotekidearen eta alaben artean; horrenbestez, uste dut nire *e-reader*-a eroango nukeela.

Zer barik ezin zaitezke bizi?
Askatasun eta musika barik. Lehenengorik gabe ezin daiteke bizi, eta bestea hizkuntza unibertsala da, gehien asetzen nauena.

Animalia izango bazina, zein izango zinateke?
Tximinoa.

Azken aldian egin duzun erokeriarik handiena?
Oin bat operatu barria izanda, 70 metroko rappela egitea.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?
Lazkao. Aitaren familia guztia bertokoa da, eta urte batzuk emon ditut bertan bizitzen.

Miresten duzun historiako pertsonaiaren bat?
Lenin.

Zein barri gura zenuke irakurri biharko egunkarian?
Gosea erauzi da, eta Palestina, Mendebaldeko Sahara eta Euskal Herria hiru estatu barri bihurtu dira.

Zerk ematen dizu beldurra?
Min fisikoak eta gizadiaren biolentziak. Oso desatseginak dira. ○

LABURREAN—Fernando Madina Reincidentes musika-talde ezagunaren abeslaria eta baxu-jotzailea da. Venezuelan jaio zen duela 48 urte, baina Espainiar Estatuan eta Euskal Herrian emon du bere bizitzako zatirik handiena. Egun Sevillan bizi bada ere, askotan etortzen da gurera kontzertuak emotera edota aitaren herria bisitatzera, Lazkao. Datozen egunotan ere, Euskal Herrian ikusi ahal izango dugu eszenatokiz eszenatoki Reincidenteseko beste kideek batera. Izan ere, martxoaren 27an, 28an eta 29an, hurrenez hurren, Bilbon, Donostian eta Gasteizen joko dute.



Nagore Baroja > Industria Elektronikako Ingeniaritza ikasten dabil MONDRAGON UNIBERTSITATEAn

“Irakasleenganako hurbiltasuna azpimarratuko nuke”

—Zergatik aukeratu zenuen Industria Elektronikako Ingeniaritza? Eta zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEAn?

—Industria Elektronikako Ingeniaritza gradua aukeratu nuen, gaur egun ikus ditzakegun ia gauza guztiak (telefono mugikorrak, kotxeak, telebistak, eta abar) elektronika bat daukatelako, eta etorkizun on bat izateko edota lanpostu bat izateko aukera ikusi nuen. Gradu hau MU-n ikastea niretzako aukerarik onena zen. Beste leku batzuetan, gradu hau edo antzerakoak ere badaude baina azkenean dena teorikoki ikasten da, aldiz MUn urtero bi proiektu eta praktikak egiteko aukera eskaintzen zuten, eta nik beti ikasi izan dut hobeto eginez, memorizatuz baino.

—Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

—Orain arte bizitako esperientzia oso ona izan da. Proiektuen eta praktiken bitartez asko ikasten da, eta ez bakarrik ikasi, teoriak aplikazioa daukala ikusten da, eta hori azkenean ikasteko gogoak, edo gauzak ondo ulertzeko nahiak pizten ditu. Proiektuak daudela esaten dizuten lehenengo aldia, apur bat ikaratzaren zara edo beldurra ematen dizu, baina bizitako esperientziaren esan dezaket maisuak beti daudela laguntzeko prest eta ez zaudela bakarrik, talde lan bat da azken finean.

—Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia? Alde praktikoari garrantzi asko ematen zaio?

—Goi Eskola Politeknikoan, hau da nire gradua ikasten den fakultatean, jasotzen dugun ikasteko metodologia, lehen esan bezala praktikoa da, honek ez du esan nahi ez dago-



Nagore Baroja

ela azterketarik, hauek funtsezkoak dira, baina proiektuak pisu handia du. Azkenean inportantzia gehiago ematen zaio ikasteari notei baino, azterketa bat gaizki egien duzunean, praktikekin eta proiektuarekin ikastea lortu duzula frogatzen baduzu, nota igo dezakezu.

—MUTik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

—MUTik gehien gustatzen zaidan gauza aipatu beharko banu, maisuenganako hurbiltasuna dela esango nuke. Leku guztietan bezala, maisu guztiak ez daude hain laguntzeko prest, baina gehien bat, beti daude prest daukazun edozein zalanza argitzeko. Eta gusta-

tzen ez zaidan gauza bat aipatu beharko banu, hiru hizkuntzetatik ingelese asko ez izatea da. Bi seihilekoan behin ingelesezko ikasgai bat dago, baina nire ustez gehiago egon beharko lirateke, azkenean lanpostu bat izatekotan ingles maila on bat izatea eskatuko dizute.

—Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

—Nire etorkizunerako asmoak, nahiz eta beharbada asko eskatzea izan, energia berriztagarrien inguruan lan egitea litzateke. Eta, ahal izanez gero, etxetik hurbil eta unibertsitatea amaitu bezain pronto.

Pintxotan eta berbetan!

¡Pintxa y piropea!

V | Pintxo lehiaketa
Concurso de pintxos

Martxoak 29/30 Marzo
Apirilak 5/6 Abril



Getxo egin

www.getxo.net